

# GUaiXE.eus



**Binakako lasterketa Etxarrin bihar, 19:00etan**



**Kirolak >> 13**

**Uharte Arakilek hirugarren aldiz hartuko du Galiziako gastronomiari eskainitako asteburua. Jan-edanekin batera musika izanen da**



**Sakanerria >> 6**

## Zazpi galdeketen galderak ezagutarazi dituzte

>> 5



### Errefuxiatuen aldeko astea Olaztin >> 7



### Frankismoari buruzko emaria institutuan >> 9



**Iturmendiko kanpo santuko lanei aurten agur >> 5**



**Sakandarren lanak euskal idazle nafarren bilduman >> 14**



**Lau herrik banda zabala 2019an izanen dute >> 7**



**Izena eman daiteke pintura azkarreko lehiaketan >> 14**



**Familiendako bizikleta festa, igande goizean, Etxarrin >> 13**

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
ES 56 3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Mª Cruz Mundiñano**  
ZORIONAK ETXEKO SALTSERAI!!!  
Jubiletzeko gutxi falta dakizu!!! Egun ona izan!



**Petaka Zorionak perrita!**  
Zure lagunen partez egun ona pasa eta baakizu: Gaur de p... madre jeiki ta zeruko koloreekin flipau zazu, Aurrera Bolie!

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideak:

3,50€

## Etxarri Aranatz

### Dantzari txikiak Etxarrin



Etorkizuna dantza taldeak antolatu du biharko Dantzari Txiki eguna. Etxarri Aranatzko eta Altsasuko dantza taldekoekin batera Lazkaoko ariko dira. Dantzari txikiez osatutako segizio koloretsua

11:30ean plazatik abiatuko da kalejiran. Mikel Arregi plazan aurreneko geldialdia egingen dute euren dantza trebezia erakusteko. Bigarren dantza erakustaldia Bureinako plazan izanen da eta, azkenik, kalejiran plazaraino eramanez dituzte eta han, guztiak, dantza saioa eskainiko dute.

## Olatzagutia

### Iruindarren eta olaztiarren dantza ikuskizuna

Larunbatean, 18:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Olatzagutiko Akelarre ludotekan Irantzu Gonzalez irakaslearekin dantza tailerra izan da eta han ikasitako jendaurrean egingen dute, bihar. Baina, kultur etxeko eszenan ez dira bakarrik egonen. Iruñeko All Dance taldea hip-hop doinuaren erritmorarikoa baita. Eta bi taldeen bakarkako emanaldien ondoren, guztiak elkarrekin ariko dira dantzan.

## Maiatza-ekaina

# 26-1

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Mikel Auzmendi Garziandia.** Maiatzaren 26an, ostiralean, 19:30ean Etxarri Aranatzko Gure Ametsa jubilatuen elkartearen.

**Tokan2 La Polla.** Maiatzaren 26an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

**Benation.** Maiatzaren 26an, ostiralean, 23:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan.

**The McKensy's Clan Band.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 19:00etan Uharte Arakilien.

**Todos los musicales o casi.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Demode Quartet.**

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Maiatzaren 28an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranatzko plazan. **Musika Eskolako ikasleak.**

### Dantza

**Dantzari txiki eguna.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 11:30etik aurrera Etxarri Aranatz.

**All dance.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 18:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **All Dance eta ludotekako tailerrekoak.**

### Antzerkia

**Mi mujer es el fontanero.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Txilindron antzerki taldea.**

### Zinema

**La alta sociedad.** Maiatzaren 26an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 28an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Un italiano en Noruega.** Garagarrilaren 1ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Aztiria-Altsasu (92 km).** Maiatzaren 27an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

**Altsasu-Etxarri-Altsasu.** Maiatzaren 28an, 8:45ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

**Bizikleta eguneko ibilaldia.** Maiatzaren 28an, igandean, 9:30ean Etxarri Aranatzko plazatik. Gero jolasak, tailerra...

### Irteerak

**Plazaolako bide berdea (15 Km).** Maiatzaren 28an, igandean, 9:45ean Etxeberritik Lekunberrira. **Bide Berdeen Eguna.**

### Ibilbideak

**Ipar marbra.** Maiatzaren 28an, igandean, 10:00etan Arbizuko kanpineko aparkalekutik.

### Erakusketak

**Itziar Nazabal arte eskola.** Garagarrilaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Ipar marbra. Zer da?** Maiatzaren 27an, larunbatean, 12:00etan Arbizuko udaletxean.

### Hizketaldiak

**¿Qué está pasando en Grecia con las personas refugiadas?** Maiatzaren 30ean, asteartean, 15:00etan Olatzagutiko Memoria Historikoaren parkean.

### Tailerak

**Ispiluari begira.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 11:00etan Arbizuko udaletxeko batzar gelan. LHko haur eta gurasiendako. **Aurretik izena eman.**

**Aulki-ipurdiak konpontzen ikasi.** Maiatzaren 31n, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Kafe Konpandu.**

### Azokak

**III. Pulpeiro azoka.** Maiatzaren 26an, ostiralean, 20:00etatik aurrera eta maiatzaren 27an eta 28an, larunbatean eta igandean, 12:00etatik aurrera Uharte Arakilgo plazan.

### Bestelakoak

**Haurren eguna.** Maiatzaren 27an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatz.

**Bizikleta eguna.** Maiatzaren 28an, igandean, 9:30etik aurrera Etxarri Aranatzko plazan. **Sakanako Mankomunitatea.**

**Gaztetxokoa: mustutzea eta ate irekien eguna.** Maiatzaren 28an, igandean, 17:00etik 19:00etara Etxarri Aranatzko gaztetxokoa.

### Deialdiak

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Maiatzaren 26an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranatzko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Altsasukoak aske.** Maiatzaren 28an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakailu, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero  
**SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Olatzagutiko errefuxiatuen aldeko astea
- Cava festaren balorazioa
- Ander Leonekin Gogoan proiektuaz

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

# TURISMOA SAKANAN

*Ezagutu gaitzazu!*

**Sakanak hartzen dituen 360 km<sup>2</sup>etan naturaz gozatzeko hainbat aukera ditugu. Gure eskualdea bi natur parke zoragarri inguratutik dago: iparraldean Aralar, hegoaldean Urbasa-Andia. Beraz, mendiaz gozatu eta kirola egiteko aukera bikainak dauzkagu bertan. Oinez, bizkletaz, zaldiz...edo autoz. Sakanak barrena nahi dugun bezala murgil gaitzetzeko, zalentzarik ez izan, gure bazterrek eta txoko politak asetuko zaituztete! Jarraian aukera batzuek lutzatzen dizikizuegu, ahaztezina izanen den gonbiteaz gozatu!!**

Naturan murgildua eta komunikazio bide bikainekin Iruñera, Donostia eta Gasteizera. **Arbizuko ekokanpinean** iraunkortasuna, bio-erakuntza, bio-klimatikotasuna eta energia berriztagarrien erabilera dugu erizpide. Mobilhome bioklimatikoak, logela anitzak eta argi indarradun partzelak. Supermerkatura, taberna-jatetxea, aintzira naturala hondartzarekin, igerilekua,

haur parkea, altzari-dun karpa, parkina eta auto karabanendako tokia. Jasangarritasun ekologikoa egin dira eraikin guztiak. Inguru zoragarria oinez eta BTT- ez ibiltzeko.

**Irañetako Baltegi landetxea**, alde batean Berriain eta Aralar bestean, txoko polit bat dago bi mendi hoi artean, Irañetako etxe maitea izango den bihotzean, agur Baltegi baietz etorri beste egun batean! Antzinako lastategia 100 metroko etxebizitza atsegin eta abegitsu bihurturik. Erabat zaharberritua dago, eta haritzeko egitura dauka. Gehienez 6 lagun. Beheko solairuan, gela berean, komun osoa, sukaldaria, jan-gela eta egongela ditu. Terrazan barbakoa dago. 1go solairu angutzit hornituta kokomun bat eta hiru gela bikoitz daude. Ganbaran sabaimaldaduna duen gela txiki bat dago, aisialdirako. Guztiz jantzita.

Altsasuko erdigunean, **Biltoki taberna-jatetxea** aurkituko dugu. Urteetako esperientziak jatetxeko zerbitzua bermatzen du, kalitatez-

ko menuak astez eta asteburuetan menubereziagoak. Jatetxea bigarren solairuan kokatuta dago eta beheko solairuan taberna. Astez gertuko giroa eta asteburuetan jai giro paregabea. Kanpoaldean terrazazabala dago, haurrentako parkea, lagun artean edo familian zerbitzua hartzeko.

XVII. mendeko Urdaingo errotan bertan, **Errotain zaldi ibilaldiak** enpresa daukagu. Enpresa honen berezitasuna zaldizko turismoa da. Errotainen, ez adinak, ez mailak ez du mugarik, edozeinek lekua du. Zaldi ibilaldi ezberdinak eskaintzen dituzte, orduka, egun erdikoa, zein egun osokoa. Ibilaldiak zure neurria egokitzen dituzte. Urtean zehar jarduera ezberdinak antolatzen dituzte, hala nola, udako kanpusak edo

gazte zein helduendako ikastaroak. Ez galdu aukera Sakana beste ikuspegi batek bizitzeko, gozatzeko.

Urbasa-Andia eta Aralarren, toki estrategikoan kokatuta, **Etxarriko Kanpina** dago. Urederra iturburu, Iruñea eta Gipuzkoako hondartzak bisitatzeko. Partzelak, bungalowak eta logela anitzak. Aterpetxea. Igerilekuak, squash, futbito, basket eta tenis kantzak. Natura gustoko baduzu, aukera paregabea duzu. Harizti hostozabalez inguratua, hainbat natur ibilbide bertatik abiatzen dira. Zabalik: martxoan asteburu eta zubietan. Aste Saindutik urriaren 4ra arte, egunero. Urritik abenduaren 25a arte, asteburu tajaiegunetan. Abenduaren 25etik abenduaren 31ra arte, egunero.

1900. urteko etxea, Iturmendiko **Nemesio Etxea landetxea** 2004ean zaharberritu genuen. 6 lagunendako tokia, animaliak onartzen dira. Etxe goxoa, erabat jantzita. Gela bat 1, 35 m. ko ohearekin eta beste bigela, 1,05 m. ko bi oherekin. Lorategia, baratza ekologikoa, oilategia. Aralar, Urbasa eta Andia bertan. Zaldian ibilbideak, harizti eta ur jauzi artean. Parapentean ibilgai-

tezte. Mugikortasun murrizta duten dako egokituta, dutxa eta komunak egokituta. Txikienek haur parkea atarian dute. Pilotalekua oso gertu dago, trafikorik ez dago. 30 minututan Iruñean edo Gasteizen, zator eta gozatu!

**Sanpedrokobidea Etxe Turistikoa** Altsasuko alde zaharrean kokaturik dago. Festetaz, ekitaldietaz eta ezkontzetaz gozatzeko, lasaitasun osoz. Donostiatik 49 km. tara, barbakoa eta terraza duen lorategia du. Parking pribatua bertan. 5 logela, bainugela bat, pantaila lauadun telebista, DVDa. Jantokia eta sukaldaria zabala, ontzi garbigailua eta labearekin. Mandiaren eta esku oi halak bertan. Iruñea 44 km. tara, Gasteiz 41 km. tara. Ekintza ezberdinak, zaldiz, txirrindulaz eta oinez.

Ameskoako aranean, Larraon **Urbasa Abentura** turismo aktiboko enpresa daukagu. Aisialdi eta entretenimendu alternatiba bat, kirola egiten den bitartean naturatik gertu dagoena, naturan bertan integratuta. Urbasa Abenturan turismo eta aisialdi jarduerak ezberdinak aurrera eramanez izango dituzue Urbasako, Entziako eta Lokizeko natur gune parekabeetan, parkean bertan edo inguruko kobazuloetan ere. Familiarekin, lagunekin, taldetan, lankideekin zein bikotearekin gozatzeko aproposa, bertan dagoen tabernan edatekoak eta jatekoak aurkituko dituzularik.

**ARBIZU CAMPING**  
**ARBIZUKO KANPINA**  
 848 47 09 22  
 www.campingarbizu.com

info@baltegi.com  
 +34 649 234 549

**Baltegi**  
 Irañeta

948 467 876 · Altsasu

**BILTOKI**  
 TABERNA • JATETXEA

948 467 876 · Altsasu

uztailean zaldi kanpusa:  
 1. banda 10etik 15era  
 2. banda 17tik 21era  
 Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara  
 Prezioa: 150€

**ERROTAIN**  
 URDAIN (NAFARROA)  
 687 424 839 · 626 749 149  
 www.errotain.com · errotain@gmail.com

camping etxarriko kanpina

**ETXARRIKO**

948 460 537  
 Etxarri Aranatz  
 www.campingetxarri.com

Zure landetxea

**Nemesio Etxea**

casaruralnemesio@gmail.com  
 662 069 175  
 644 655 328

**San Pedroko Bidea**  
 Etxe Turistikoa

San Pedroko Bidea 25  
 Altsasu · 650 023 698

**URBASA ABENTURA**  
 Mendigaraia 32, Larraona  
 info@urbasaabentura.com  
 www.urbasaabentura.com  
 677 264 559 - 610 431 999





Xabier Reparaz Extramiana

## Itsas lamien atzetik

astekoa

Itsas lamien kantuak itsasoetako arriskulatzinak ziren greziarren ustez. Arrain eta neskatxa bitarteko hibrido hauek, kantuetan errez marinelak arkaitz zorrotzera bideratzen omen zituzten, heriotz ziurrerantz. Edertasuna suntsipenaren lagun. Liluramenean txo-

raturik, arriskueta jabetzen ez den ameslaria, bere buruaren segurtasuna ahazturik galbidera bidean.

Gaur egun, neskatxa mutanterik ez dugu ezagutzen (oraindik behintzat) itsas bazterretan kantuz. Haien pareko otu zaizkit gure

mugikor maiteak. Eskura ditugu munduko edertasun, jakinduria eta lotura guztiak. Hari begira, gure bizitzaren norabidea okertu dezakegu lotsarizko argazki edo esaldi txar batekin. Gartzelara eraman gaitzake txistetxar batekin ere. Hark gidatzen gaitu gure

pentsamenduetan, gure emozioen jabe giteraino. Urruneko balea urdinen atzetik heriotzerantz bideratzerainoko indarra duela erakusten digute egunero albisteek.

Itsas lamien kantuen atzetik, gure burua kontrolatzeko gai ez

garela ematen du. Ulisesen antzera, ontziko mastari gure burua lotu, edota haren marinelekin agindu zien modura, belarriak estali beharko genituzke akaso. Gure garaiko kantu eder horiei so, zuhaitz edo farola baten aurka talka egiten dugu greziarren galera zahar haien antzera. Adi gure ontzia sare sozialetan trabatu edo etsipenaren arkaitz zorrotzetan txikitu ez dadin. Kontuz bada sakelekoarekin, gehiegizko txoramenak zorabioa eta nazkatzerainoko botagurea sortzen baititu.

## barrutik kanpora

### Gehien kutsatzen duenak ez du ordaintzen

Orain dela gutxi onartu dute Katalunian auto eta furgoneta erabiltzaileek klima aldaketa eragiten duen CO2 isuriengatik 2018tik aurrera ordaindu beharko duten zerga berri bat. Ibilgailu bakoitzak ordaindu beharreko batezbestekoa 15 eta 30 euro artekoa izan daiteke, beti ere isuria km-ko 120 g CO2 baino handiagoa bada.

Hau Kataluniako kasua da baina horrelako neurriak, eragin-

kortasun zalantzagarrizkoak bezalade, beti poltsiko beretik ateratzen den diru bilketa dute helburu, eta gainera oso ondo saltzen dira nonahi, ustez, ingurumena babesteko direlakoan.

Betiko kontua da, edo zeren zerga ezarpen herritar xumeon bizkar erortzea, enpresa kutsatzaile handienak betebeharrorietatik kanpo uzten diren bitartean, eta ez oraingoan bezala bakarrik berotegi-efektuko gasen (BEG)

kasuan, baizik eta gauza bera gertatzen da gure osasunerako askoz ere kaltegarriagoak izan daitezkeen gas ugariarekin ere bai, eta horren kostua gainera denon artean ordaintzen dugu.

Enpresa horiek Katalunian ez dute ordainduko. Hemen ere ordainduko ez luketen bezala eredu hori ezarriko balitz, eta hori berandu baino lehen gertatuko da. Ezin dugu kalkulatu zenbat utziko duten ordaintzetik enpre-

sa horiek Katalunian, herritarrek ordaindu beharko dutenarekin alderatuz gero, baina datu horiekin, bai alderatu dezakegula gure inguruko enpresa kutsatzaileekin. Horrela, Zabalgarbiko errauskailuak, 2014an 235.000 tona CO2 isuri zituenak, 4 milioi euro inguru gutxiago ordainduko lituzke.

Horrela ateratzen dira aurrera proiektu hauek, kutsatzeagatik ez ordaintzeaz gain, erregimen bereziko primak jasotzen dituzte, gainera, beren ibilgailuen kutsaduragatik zerga ordaindu beharko luketenen poltsikotik.

CO2 isurtzaileen sailkapeneko txapelduna, alde handiz, Olaztioko zementu-fabrika da. Urtero

400.000 tona CO2 isurtzen ditu, hau da, horren arabera 7 milioi euro inguru ordaindu beharko lituzke

Lantegi honen kasuan, gainera, oraindik larriagoa dena gertatzen da, isuritako CO2arekin negozioa egiten dute zuzenean, gas hori dohainik isurtzeko asignazioak jasotzen baitituzte, hau da, diru-laguntzak CO2a isurtzeagatik.

Ustelkeria sistema osoan zabaldua dago. Eta ez dago ustelkeria morala baino okerragorik. Horren adibide dira aurrerakoiz jantzita errausketa inposatu nahi duten politikoen kasua. Aurrerakoiak bai, baina ustelkerian.

**3Mugak Batera**

## Hara zer dien

### Gazteen kultura desberdinetan, elementu komunak

Azken hamarkadetan gazteen kulturak haien ezaugarriak zehazteko erabili izan dira askotan, eta beste zenbaitetan, haien sailkapen soziala egiteko.

Estilo guztiak edo, hobeto esanda, gazteen estilo batzuk, askotan, gizarte-aldaketaren eragileak izan dira; hain zuzen ere, aldaketak ekarri dituzte bizimoduaren zein pentsatu, izan eta munduan egoteko moduetan. Aldaketa eta aldarrikapen sozial horiek mundu osoan egin dira.

Guztioi etortzen zaizkigu buru-

ra—gazteen kasuan entzunez bakarrik bada ere—hippya, rockzaleena, punkia, skin heada, pijoa, gaztetxeroa, heavya, okupa, fashiona, rasta, feminazia, sakanikola... eta beste hainbat gehiago.

Hainbat heldu sektorek eta erakunde mediatikoek etiketatu eta sailkatu dituzte, baita horietako zenbait mirespenez tratatu eta beste batzuk gaitzetsi ere. Are gehiago, mehatxutzat hartzen ere iritsi dira edo gutxietsi egin dituzte sistema nagusiarekin kri-

tikoenak diren gazteen estiloak.

Ikerketa soziologiko askok, berriz, gaztaroa ikuspuntu klasiko eta estrukturalan oinarrituta aztertu dute, hain zuzen ere familiari, ikastetxei eta lanari loturik. Eraberean, gazteei buruzko ikerketa ugari gazteen aisia, asoziazionismoa eta parte-hartzea ere aztertu dituzte. Hala ere, ez da apenas egin oraingo "hiri-ko tribu"-ei buruzko ikerketa zorrotzik, ez eta horiek gazteengan zein helduengan duten eraginari buruzkorik ere. Oso inte-

resgarria izango litzateke gure herrian norbait animatuko balitz horren gainera ikerketa egitera.

Argi dago badirela gazte gehienek erabiltzen dituzten ikur eta sinbolo batzuk: arropa-estiloa, oinetakoak, musika, ile-mozketa, apaingarriak, biltzeko tokiak... Ezaugarri horiek gizarte-testuinguru desberdinak, askotariko esperientziak eta bizitza-istorio heterogeneoak islatzen dituzte. Ziurrenik, funtsezkoari heltzen badiogu, berehala ohartuko gara sinestarazi digu-

ten baino distantzia txikiagoa dagoela estiloen artean, eta, estilistik harago, elementu komun gehiago dituztela. Eta horietatik dira, hain zuzen ere, benetan garrantzia duten osagarriak, esate baterako: bizi-proiektuak; "babak eltzetik atera" behar izatea; mundu justuagoa eta bidezkoago baten alde lan egitea, hau da, zuzen, bakezale eta ekologikoagoa izateaz gain, neskei protagonismo handiagoa ematen dien mundu baten alde lan egitea. Eta hori guztia bakarrik izango da posible gazteen azpikulturak, kontrakulturak eta mikrokulturak batzen badira, munduko edozein tokitan, Altsasun barne.

**Altsasuko Udal Gazteria Zerbitzua**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

## Zuzenketa


Zizur Nagusian erakusketa jarri duen eskultorea Jesus Mari Olmos da, eta ez Jose Mari, aurreko astean 15. orrian jarri genuen moduan.

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:



**EKOIZLE-DENDARI ALIANTZAK:** Sakanako lehen sektoreko profesionali aurrera nola egin laguntzeko, Laborantza Foroak ekoizle eta dendarien arteko aliantzak azter-

tuko ditu *Euskal Dendak*-ekoekin batera. Garagarrilaren 1ean, ostiralean, 18:00etan, Arbizuko Utzaganen.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Galdeketen galderak baditugu

**Garagartzaroaren 18an ibarreko zazpi herrietan eginen diren galdeketeak galderak ezagutarazi ditu Gure Esku Dagok**

Etxarri Aranatzek 2014ko apirilaren 13an zabalduko bidea beste batzuk ibiltzen hasi dira. Orduetik 142 herrietan egin dira estatus politikoari buruzko galdeketeak. Eta garagarrilaren 18an Nafarroako beste 24 herri batuko dira, haie-tatik zazpi sakandarrak: Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia.

### Adierazpena

Nafarroa galdeketen aldeko adie-

razpena publiko egin zuten larunbatean. Gure Esku Dagoren ekimena babesten duten 26 pertsonen adierazpena Izaskun Etxeberriak irakurri zuen: “gero eta argiago daukagu: herritarrok erabaki nahi dugu. Nola bizi nahi dugun erabaki nahi dugu, zein den gure estatus politikoa erabaki nahi dugu eta etorkizunaren jabe izan nahi dugu”. Gogorarazi zuen nafarrek Foru Hobekuntza “herritarrok ezin izan genuen zuzenean erabaki. Gauregun horrelako egoera bat pentsaezina da. Guk geuk hartu dugu erabakiaren bidea ire-

kitzeko ardura”.

Orain arte antolatutako herri galdeketa “guztiak herritarren ahalduzko prozesu eredarriak, erabakitzeko nahiaren isla, eta demokratiaren ariketa argiak” izan direla azaldu dute Gure Esku Dagotik. Adierazpena babestu dutenek Nafarroan eginen diren herri galdeketa guztiei “sostengu osoa” azaldu diete. “Aukera ezin hobea izango da herritarren nahia adierazteko, erabakitzen hasteko. Elkarrekin etorkizuna eraikitzen lagunduko dutelakoan gaude.



Nafarroako galdeketa guztietako galderak Iruñean ezagutarazi zituzten.

Beraz, animatu nahi ditugu herri hauetako herritarrok ariketa

demokratiko hauetan parte har dezaten, gogoz eta ilusioz”.

## Galderak

### Irurtzun

- 1) Nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeko?
- 2) Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko irurtzundarra izan?

### Lakuntza

Nahi al duzu Nafarroako herrita-

rok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeko?

### Arbizu

Nahi duzu Nafarroak gainerako euskal lurraldeekin estatu bat eratztea?

### Urdiain

- 1) Nahi al duzu herritarrok gure etorkizuna era librean erabakitzea?
- 2) Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko urdiindarra izan?

### Altsasu

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeko?

### Olatzagutia

Nahi al duzu Nafarroa burujabe bateko herritarra izan?

### Ziordia

Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan?

### Adierazpenaren babesle sakandarrak:

Anabel Arraiza, Gurutze Arregi, Jose Luis Arrizabalaga, Jorge Azanza, Alberto Barandiaran, Izaskun Etxeberria, Joseba Garmendia, Manu Gomez, Edurne Larraza, Hodei Mazkarian, Garbiñe Petriati, Dora Salazar, Castillo Suarez, Enrique Zelaia eta Juakina Zubiria.

### Deia, “bidea elkarrekin egiteko”

“Gure Esku Dago ekimenak sustatutako herri galdeketeetan parte hartuz, erabakitzeko eskubideari buruzko herritarren ituna osatuz, garagartzaroaren 10eko *Erabakitzeko prest* mobilizazio parte hartzailean esku hartuz, edota norabide bereko bestelako ekimenetan nork bere alea jarri.

## Iturmendi

# Hilerriko lanak aurten despedituko dira

Iturmendiko Udalak aurten 269.326,81 euroko aurrekontua izanen du, joan den urtean baino 70.533,95 euro gutxiago. Victoria-no Gabirondo alkateak esan digunez bi inbertsio nagusi eginen ditu udalak aurten. Alde batetik, hilerrian tokirik gabe gelditzen ari ziren eta konponbidea emanen diote. Lan guztiak aldi berean egin ezin zirenez, joan den urtean hasitako lanei aurten segida emanez.

Gabirondok azaldu digunez, Iturmendin lurrean lur emateko ohitura oso errotuta dago. Beraz, horma-hobiak egin beharrean,

lurrean zulo handiak egin eta haietan aurrefabrikatutako hormigoizko egitura handiak sartuko dituzte. Horien barruan hildakoen kutxan jarriko dituzte. Porlanezko egitura bakoitzak bere tapa du eta haren gainean 15-20 cm-ko lur kapa geldituko da, belardia. Joan den urtean halako 10 bat kutxa jarri zituzten hilerrian eta aurten beste 13 jarriko dituzte. 10.000 euro inguru bideratu dira lan horietara. Gauza batzuk auzolanean eginen dira eta besteak kontratu-pean.

Alkateak azaldu duenez, hartutako neurriak lurrean zuloa egi-



Iturmendiarrak hilerrian domu santu egunean. ARTXIBOA

teko lan neketsua eragotziko du. Bestetik, eta hilerria eskaera berriei egokitzeko 30 espazioko kolunbarioa jarriko dute hilerrian. Gainera, haren ordenantza joan den urtean berri zen. Bes-

talde, Iturmendiko Udalak aurtengo duen beste inbertsioa kale argietan bonbilak led teknologia-gatik ordezkatzeta da. 8.000 euroko aurrekontua du eta lanak auzolanean eginen dira.

Joan den urtean udalak eskola berriko sotoa biltegi moduan txukundu zuen. Hura eskolak eta udalak erabiltzen dute. Bestalde, gaztetxe ondoko etxeko teilatua konpondu zuen ere.

## C3 CITROËN BERRIA AS UNIQUE AS YOU ARE

ConnectedCAM Citroën™  
personalizazioko 36 konbinaketa  
Citroën Advanced Comfort®



CITROËNek nahiago TOTAL KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 (G/KM) ISURIA : CITROËN C3: 3, 2-4, 7 / 83-109

citroën.es

**AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com**

## » Arakil / Etxeberri

## Bide Berdeen Eguna igandean ospatuko da

**Etxeberri eta Lekunberri arteko ibilaldia egingen da, 9:45ean, frontoitik hasita**

Arakilgo Udala kide den Plazaola turismo partzuergoak urtero Bide Berdeen Eguna antolatzen du. Haren bidez trenbidearen ibilbide zaharrak nola birgaitu diren eta zikloturistendako ibilbide eta mendi-ibilbide nola bihurtu diren ezagutarazi nahi da. Aldi berean, Plazaola bide berdea ezagutarazteko eguna izan nahi du.

Horretarako bidea bertatik bertara ezagutzea baino hoberik ez

dagoenez, iganderako ibilaldiak antolatu dituzte. Lekunberri helmuga duten ibilaldiak hainbat herrietatik abiatuko dira. Etxeberrietik 9:45ean abiatuko da martxa, 15 km-ko luzera duena. Gainera, 11:30etik aurrera ibilbide animatu batek familia osoa parte hartzera gonbidatuko du. Lekunberri ibiltarietako programa zabal batez gozatzeko aukera izanen dute: txutxu tren, ipar martxa ikasi eta praktikatu, puzgarriak, pailazokak, globofexia-tailerra, artisautza-azoka eta beste.



Atzera ere Plazaolako bide berdeen barna ibiliko da jendea igandean.

## » Uharte Arakil

## Galiziako gastronomia plazan

**Ostiralean, 20:00etatik aurrera, eta larunbatean eta igandean, 12:00etatik aurrera**



Hirugarren edizioa egitearekin Galiziako pulpeiroaren hitzordua Uharte Arakilgo eta Sakanako ospakizunen egutegian finkatzeko bidean da. Lugotik etorriko da Baralla pulpeiroa, bere plantxa, parrila eta eltzeekin. Haietan olagarroaz aparte, lakona, Padrongo piperrak, ganba handiak eta txikiak, zanburinak,

txurraskoa, kriolloa, txorizoa eta beste prestatutako dituzte. Plazako atzerpean prestatutako sukalde eta barraren ondoan mahai eta aulki mordoak izanen dira, majo eserita jatekoak nahi beste gozatzeko. Jatekoak bulkatzeko, jakina, Galiziako ardo txuriak izanen dira, Albariñoa eta Riberoa.

Olagarro festarekin batera musika izanen da larunbat goizean. Arratsaldean, berriz, 19:00etatik 21:00etara, Kataluniatik etorritako The McKensyes Klan Band taldearen kalejira izanen da. Eskoziar musikari bitxiak izanen dira kaleak girotzen. Larunbatean, keimada ere egingen dute.

## » Etxarri Aranatz

## Haurren egune ospatuko da bihar

Etxarri Aranatzko Gazte Asanblada aste-oro gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko egitaraua aletzen ari da. Hamar urte, hamaika eitteko lelopean prestatutako egitarauan bihar haurrei eskainitako eguna ospatuko da.

## Egitaraua

- » 11:00etan Haurrendako jokubek.
- » 12:30ean Bordetxe abere zirkua.
- » 14:00etan Bazkaye.
- » 17:30ean Pupu eta Lore.
- » 19:00etan Auzatea.

## » Irurtzun

## Irurtzun matematikari gazteen bilgune

XXXI. Nafarroako matematika olinpiada jokatu zen Irurtzunen larunbatean. Horregatik, kiroldegiak ezohiko itxura hartu zuen, mahaiz eta aulki-iz bete baitzen. Haietan, ikastetxe desberdinetako ikasleak binaka jarri eta hainbat matematika ariketa egin zituzten. DBHko 2. mailako 160 ikasle parte hartu zuten, euskaraz eta gaztelaniaz. Garaikurra David Lekunberri eskuratu zuen, Iruñeko Calasanz ikastetxeak. Valladoliden jokatutako estatuko txapelketarako txartela eskuratu du, garagartzaroaren 22tik 25era.

## » Altsasu

## Elikagai bilketa handirako boluntarioak behar dira

**Izena eman nahi dutenek Sebastian Uhalde, Txan, apaizari eman diezaioke, elizan 19:30etik 19:45era**

Nafarroako Elikagai Bankuak jaki bilketa handia egingen du garagarri-laren 2an eta 3an, ostiralean eta larunbatean. Bilketa horrekin Nafarroako Elikagai Bankua hornitu eta



hark herrialdeko 8.000 familia lagunduko ditu. Udaberriko eta udazkeneko bilketa handiekin urtean zehar bankuak banatzen dituen elikagaien %18 inguru eskuratzen du. Altsasun lau bilketa puntu egonen dira eta antolatutako txandetan ari zeko 48 pertsona beharko dira.

## » Urdiain



## Gure Esku Dago eguna ederra

Larunbatean ospatu zen Gure Esku Dago eguna Urdiainen. 150 lagun inguru bildu ziren plazan burrututako bazkari ederrean. Ekainaren 18ko galdeketa parte hartzeko gonbidapena egin zuten bertan bildutakoek eta Urdiainen Gure Esku Dagok grabatutako bideoa aurkeztu zuten ondoren. Jai giroak ordu txikira arte iraun zuen.

## » Irurtzun

## Galdeketa alde

Gure Esku Dagok estatus politikari buruzko iritzia galdetuko die irurtzundarrei. Herri galdeketa baten bidez izanen da, garagartzaroaren 18an. Herritarrek galdeketa bertan dela gaztigatzeko eta haren inguruan herri giroa sortzeko Irurtzunge Gure Esku Dagok garagardo festa antolatu zuen larunbaterako. Herriaren estreinakoa. Katalunia, Eskozia eta Euskal Herriko garagardo dastaketak harrera polita, arrakastatsua izan zen. Galdeketa bi galderak ere aurkeztu zituzten. Ikus 5. orria.



## SAKANA

## Bost jakin-mina diploma

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak Jakin-mina programako diplomak banatu ditu gaur. Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan diplomak jaso dituzte 33 gaztek. Horien artean bost gazte sakandar daude: Altsasu institutuko Leire Sagarzazu Ibarguren, Eider Tiscar Lopez eta Amaia Vicente Goikoetxea-Ziordia eta Andra Mari ikastolako Iune Atxa Ganboa eta Garazi Corroza De la Cueva.

Jakin-mina zikloa Jakiunde antolatu du. Haren helburua da akademikoki motibatuta dauden gazteen adimen-garapena eta garapen pertsonala azkartzea, adituek emandako hitzaldi eta erakustal-



Saritutako 45 gazteetatik 33k jaso zuten aitortza asteartean.

dien diziplina anitzeko programa baten bidez. DBHko ikasleei zuzenduta, haiendako Nafarroako Uni-

bertsitate Publikoan egindako bost hitzaldiz osatu da, azaroaren 18tik martxoaren 31ra artean.

## » Lakuntza

## Cava festaren balorazio "oso ona" egin dute

Aitor Gartzia kultura zinegotziak Cava festaren balorazio "oso ona" egin zuen. "Ostiralean nahiko jende hurbilduz. Larunbatean, arratsaldean, jende pila gerturatu zen. Gauean oso giro alai egon zen". Sant Sadurniko dantzariak eta Lakuntzakoak elkarrekin aritu ziren eta "hori gauean Cava azokan

islatu zen. Helduak, gazteak dantzan. Oso giro polita sortu zen. Ordu bietan itxi genuen karpa, itxi beharra zegoelako".

Cava festaren kokapena frontoetik elizaren dorre ondora aldatzarekin asmatu zutela esan du zinegotziak. "Nabaritu da eta asko. Esaterako, igande eguerdian joan den



Cava festarekin batera, igandean, bertako produktuen azoka egin zen.

urtean Cava azokan ez zegoen inor eta aurten asko egon da". Beraz, igandean bertako produktuen eta

artisauen postuetatik gertuago ekoizteak on egin zion Cava guneari, "ikusitako zelako". +www.guaixe.eus

## SAKANA

Lau herritan  
banda zabala  
2019rako

Toki Administrazioio zuzendari nagusi Xabier Lasa Gorraizek belaualdi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboan arloko inbertsioen programaren ebazpena sinatu du. Inbertsio horiek 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren barruan daude guztira 507.628 euro bideratuko dira banda zabala Nafarroako hainbat herrietara eramateko.

Haietako lau Sakanan daude: Uhar-te Arakil, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain. Banda zabala herri horietara eramateko guztira 129.500 euroko inbertsioa eginenda, horrela banatuta: Uhar-te Arakil 52.500 euro, Bakaiku 21.000 euro, Iturmendi 31.500 euro eta Urdiain 24.500 euro. Lanak 2019 urtean egingen dira.

Jaibuserako  
arduradunak behar  
dira

Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen prebentzio zerbitzuek sustatzen dute Jaibusa. Festa egunetako joan-etorrietan istripuak eragotzi nahi du, besteak beste, gautxoriendako autobusak. Sakanako barnakogauko ibilbide horietan Jaibusean arduradunak joaten dira eta gizarte zerbitzuetatik jakinarazi dutenez, postu horretarako jende premian dabilta.

Interesatuek honako baldintzak bete behar dituzte: euskaraz jakin 22 urtetik gora izan eta arduratsua izatea. Jaibusa martxan legokeen herriko festetan eta gainontzeko ospakizunetan lan egin beharko luke, larunbat gauetan. Interesatuek gizarte zerbitzuen egoitzetara jo dezake izena eman edo informazioa eskatzera.



## Altsasu

## Kulturartekotasunaren ikasgaia

Horixe ikasten ari da Zelandi eskola publikoko komunitatea azken asteetan. Haurrak aniztasuna zentzu positiboan landu dute ikasgeletan. Eta hura hainbat eskulanean islatua gelditu da. Lan horiek, gainera, ikasgelatik atera eta hainbat txoko dituen erakusketa batean jarri dituzte ikusgai. Erakusketa hori 20 bat pertonek bisitatu zuten astelehenean, Zelandiko 3. Kulturartekotasun astearen gurasoendako aurkezpenean. Izan ere, asteazkena ez beste arratsalde guztietan ikastetxeko gurasoei zuzendutako jarduerak antolatu dituzte.

Ikastetxeko atezainarena zen etxea erakusgela bihurtu dute. Geletan txokoak sortuz eta pasabidea aniztasunaren aldeko aldarria egiten duten irudi eta esku-lanez betez. Ikastetxeko ama talde bat arduratu da asteazkenetan



Gurasoek azalpenak eta kontakizunak entzuten.

ikastetxeko ikasleei txoko bakoitzari buruzko azalpenak emateaz. Eta, hala egin zuten astelehenean gurasoei eskainitako bisitei. Harrera egin ondoren, munduko ohiturei eskainitako txokoak bisitatu zituzten: Nafarroako inauteriei buruzkoa, Bulgaria eta Errumaniako.

Asteartean gurasoak emakumeek euren herrietako ohituretan duten paperaz hizketatu dira. Atzo ikasleek aniztasunaren inguruan eta txokoetan egindako grabazioa ikusi zuten. Eta, gaur, despeditzeko, munduko zaporeak dastatzeko aukera izanen da. +www.guaixe.eus



## Olatzagutia

## Errefuxiatuen errealitatea ezagutzeko astea

**Asteartean hasi eta domeka bitartean izanen da eskolak, guraso elkarteak, udalak eta Mank-ek antolatuta**

Heldu den asterako errefuxiatuen inguruko egitaraua prestatu dute Olatzagutian. Domingo Bados eskola publikoan izan du ekimena hasiera. Emma Martinez zuzendariak gogoratu zuenez, “duela urtebete ikastetxea Ikas Komunitatea proiektuan sartu zen. Eskola herrira ateratzea eta herria eskolara sartzera da Ikas Komunitatea. Eta bertan sortzen diren amets edo proiektu guztiak aurrera eramatea”.

Errealitate desberdinei erantzuna ematen saiatzen dira eta horretarako ikastetxeko komunitatea eta hainbat eragile biltzen dituen Ametsetako Batzordea sortu dute. Errefuxiatuen aldeko astean haietako batzuk zeuden: Mikel Azkargorta alkatea eta Virginia Alonso ludotekari eta kultur teknikaria, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuko Bego Zestau eta Nahia Urkia, irakasleak, ikasleak

edota gurasoak. “Taldea misto aberats bat gara”. Proiektu desberdinen artean errefuxiatuen gaiari heltzea “ezinbestekoa” zen. “Halako errealitate bati ezin diogulako bizkarra eman. Oso kontzientek izan behar dugu, eta gure ikasleak ere, munduan gertatzen diren gauzen inguruan. Eta, bestetik, herritarrek eta komunitatea garen aldetik ere”.

## Asteaz

Lehen Hezkuntzako 6 mailako ikasleekin lanean hasi ziren. Zestau eta Alonsorekin batera hausnarketa egin zuten aurrena. Ikasleek beraiek aitortu zuenez, “oso hunkigarria izan zen. Aukera izan genuen argazki eta kontakizunen bitartez hango errealitatea ezagutzeko”. Ondoren, proposamenetarako tartea iritsi zen eta han sortu zitzaizen bigarren esku-ko azoka antolatzearena. Eskola-ko komunitateko kideak aste osoa daramate liburuak, jostailuak, arropa, zapatak, bitxiak eta beselakoak eskolara eramaten. Bai-



Domingo Bados eskola komunitateko ordezkariak astearen aurkezpenean.

na ikasleek laguntza eske udalera eta dendetara ere jo dute. Gainera, astearteko hitzaldira joateko gonbidapena eginez, gutuna zabaldu dute herrian. Guztia aurrera ateratzeko ikasleek komunitateak emandako laguntza eskertu zuten.

Kulturartekotasun teknikari Zestauk azaldu zuenez, “munduko errealitate desberdinak garatzea eta munduko txoko desberdinetatik Olatzagutira etorritako pertsona desberdinekin harreman

baikorra lantzea izaten da helburua”. Aurkeztutako ekimena zerbitzuaren helburuekin bat egiten duela azaldu zuen.

Udalaren izenean alkateak: “beharrezkoa den sentsibilizazio kanpaina honen bitartez, gure mundu-kideekin eta gaizki pasatzen ari direnekin tolerantetagoak izateko bidean jartzan gaituelako. Haiek jasaten dituzten errealitate bortitzak urrun gertatu arren, oso gertuko sentitzen ditugulako”.

## Egitaraua

**Maiatzak 25 eta 26, ostegun eta ostirala**

**9:00etatik 13:00etara eta 14:45etik 16:30era** Material bilketa eskolan.

**Maiatzak 30, asteartea**

**15:00etan** Hitzaldia: *¿Qué está pasando en Grecia con las personas refugiadas?* Memoria Historikoaren parkean. Hizlariak: Bego Zestau (Greziako kanpamentuetan boluntarioa) eta Abdul Raza (Siriako errefuxiatua).

**Garagarrilak 2, ostirala**

**19:00etan** Just People dokumentala eta CEARko eta Help-Nako kideekin solasaldia. Kultur etxean.

**Garagarrilak 4, domeka**

**10:00etatik 14:00etara** 2. esku-ko azoka, San Migel plazan.

**19:00etan** *Invisibles* helduendako antzezlan. Trapalgán antzerki taldea.

**OKINDEGIA**  
**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

**ZERBITZU BERRIA**  
**BETIKO TOKIAN**

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
T. 948 468 026

**SAKANA****SGAk Industria eta Energia arloko arduraduna kontratatzeke deialdia egin du**

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) langileen beharrak betetze aldera, hautapen-probak eginen ditu Industria eta Energia arlokoa bat kontratatzeke. Lanaldi osoko urte beteko kontratua izanen da, eszedentzia bat betetzeko. Energia eta Industria saileko arduradun moduan bere egitekoak Sakanako Plan Estrategikoan aurreikusitako jarduerak garatzea izanen da. Interesatuak euren eskaerak Arbizuko industrialdean dagoen Utzugane garapen zentroan SGAk duen bulegoan edo [info@sakanagaratzen.com](mailto:info@sakanagaratzen.com) e-posta helbidearen bidez aurkez ditzakete. Eskabideak aurkezteko azken eguna garagarriaren, ekainaren, 6an, 15:30ean despeditzen da.

Lanposturako, besteak beste, honako baldintzak eskatzen dira: Euskararen C1 jakite maila frogatzeko tituluaren jabe izatea edo euskara proba gainditzea; ingeniartzan lizentziatua egotea ala Ener-



Irrurtzungo industrialdea.

gia edo Industria arloan gradua izatea; ingelesa jakitea, ahoz eta idatziz (B1) eta gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea. Eskatzen diren betebeharrak berariazkoak betetzen direla frogatzen duten agiriak eskariarekin batera aurkeztu beharko dira. Euskara ezagutzaren kasuan, izangaiak ziurtagiri ez balu, maila probak egiteko aukera izango du. Beste hizkun-

tzen kasuan ez da hizkuntza probarik izango eta ziurtagiri bidez frogatu beharko da ezagutza. Aipatutako baldintzak frogatzen ez dituztenek ezin izango dute parte hartu hautapen-probetan.

**Argibideak**[www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com)**Iturmendi****Lanak egiteko laguntzen zain**

Iturmendi Udalak hainbat lan egiteko ezinbestekoa du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza. Iturmendiko Udalak bi proiektu aurkeztu ditu Toki Azpiegituren Planera. Konsistorial kaleko zati batean, Zirrin kaleren zatian, Arrano Beltza plazako goiko eta beheko zatiak eta elizalde kaleko zati batean sareak eta zorua berritu, espaloiak jarri eta kale-argiak berritzeko lanak dira udalak egin nahi lituzkeenak. Gabirondok jakinarazi duenez, lau zatietarako diru-laguntzarik ez balego lanak pixkanaka egitea aztertuko lukete. Lanok eginez gero, herriko sareak eta zorua erabat berritzeko Txorralde eta Santa Marina kaleak faltako lirake.

Bestetik mediku kontsultategiko isolamendua hobetzeko, bergailua eta leihoak aldatu dira eta baita margotu ere. Gutxi gorabehera, 10.000 euroko inbertsioa



Arrano Beltza plazako bi zatitako sareak eta zorua berritzeko daude.

eginez. Kontsultategi gainekeo pisua, medikuaren etxea zena, etxebizitza moduan konpontzea aztertzen ari dira Iturmendin. Hiru udal dira eraikinaren jabe eta adostasunera iritsi ez direnez, behar bada Iturmendik Bakaikuri eta Urdiaini euren jabetzaren zatia erosiko lieke. Hala eginez gero, Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko funtseko dirua agian etxebizitza

horiek konpontzera bideratuko luke udalak, "baina non gastatu badago", ohartarazi du alkateak.

Bakaikuk, Iturmendik eta Urdiainek baso kudeaketarako azken bi planak elkarrekin egin dituzte. Baina basozainen zuzendaritzak irizpidea aldatu eta herri bakoitzak bere baso plana izanen du. Iturmendikoak hasierako onespina badu. Onartutakoan 10 urterako indarraldia izanen du.

**Altsasu****Asteburutara bikoiztu den Gazte Eguna**

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak hurrengo bi asteburuetarako programazio berezia antolatu du. Gazte Eguna 2017 izena duen egitarauak denetarik eskaintza biltzen du bere baitan. Intxostiapunta gazte gunean eta inguruan garatuko da egitaraua, kontzertuak izan ezik.

**Egitaraua****Maiatzak 27, larunbata**

➤ **17:00etan** Txapelketa arratsaldeak: Just dance, billarra, futbolina eta ping-ponga.

**Maiatzak 28, domeka**

➤ **17:00etatik 22:00etara** Joko erraldoiak: karts-ak, running ball eta apar festa.

**Garagarriak 2, ostirala**

➤ **23:00etan** Kontzertuak: The Guilty Brigade eta Puraposse, Foru plazan.

**Garagarriak 3, larunbata**

➤ **17:00etatik 00:00etara** Agurtze festa: karaoke, musika, artea, afaria, koktelak.

**SAKANA****Sotoko espetxera gazte martxa antolatu dute**

Madrilgo Soto del Real kartzelan urte erdi pasa preso daramate ferietako liskarragatik atxilotuetako 3 gazte altsasuar. Adur, Oihan, Jokinen askatasuna aldarrikatzeko espetxera martxa antolatu dute hiru gazte erakundeak: Ikasle Abertzaleak, Ernaik eta Altsasuko Gazte Asanbladak, Garagarriaren 3an, larunbatean izanenda martxa. Joannahidutenekohikotokietan eman dezakete izena.

**>>****Babesa espetxe atariraino**

*Kalera, kalera* dinamikak antolatuta euskal preso politikokoak dituzten eta Euskal Herritik urrutien dauden espetxeetara martxa egin zen larunbatean. Hiruna kartzela Espainian eta Frantzian. Deialdiarekin bat egin zuten sakandarrek Saint Maur espetxera joan ziren. Han preso dago Juan Kutx Maiza etxarriarra. Hiru autobus abiatu ziren Sakanatik eta Iruñetik. Gendarmeeke espetxea inguratzea eragotzi zieten martxistei. Espetxe inguruan egindako ekitaldian, Sortuko bozeramaileak presoak Euskal Herritik urruntzeko erabakiak 30 urte betetzear dela gogorarazi zuen. Urruntze horrek presoak "menperatzea eta ingurua zigortzea" helburu zuela gogorarazi zuen, nabarmenduz 16 hildako eragin dituela ere gogorarazi zioten. Sortuko eledunak esan zuten Euskal Herria "ziklo politiko berri baten atarian" dagoela, eta aurreko arari akabera emateko presoak, iheslariak eta deportatuak Euskal Herriratzea beharrezkoa dela adierazi zuen. "Bizikidetzeta eta bake egoera eraikitzeko, presoena azia konpondu behar da".

Euskal Preso Politikoen Kolektiboren eztabaida prozesua ere aipatu zuen: "ondo dakizue ezker abertzaleak zuen iritzien eta eztabaiden ondorioak errespetatu eta babestuko dituela". Ezker abertzaleak presoak bakarrik ez zituela utziko gaineratu zuen. Beharrezko jo zuen presoena, gizartearen eta erakundearen arteko elkarlana "egoera larri honi konponbidea emateko".

**>> Altsasu****Pintaketak batzokian**

Larunbat goizean pintaketak agertu ziren Eusko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) batzokian. Gasteizko Errekaleor auzo okupatuari argindarra moztu zioten joan den astean. Horren ondoren, bi pintaketa agertu dira Altsasuko Batzokian: *Errekaleor bizirik* eta *EAJ, lotu zure txakurrak*.

Nafarroako EAJk ohar bidez pintaketak gaitzetsi ditu. "Alderdi politiko baten egoitzaren kontrako erasoek itxura totalitarioa erakusten dute, ez dira onargarriak eta indar politiko eta demokratiko guztiek arbuiatu beharko lituzkete". Halako gertaerengatik "harridura" azaldu dute Nafarroako EAJtik: "uste dugu ez datorrela bat Nafarroako eta Euskadiko gizartearen heldutasun politiko eta demokratikoaren mailarekin eta erakundeetan haiek ordezkatzeko dituzten indar politikoekin". Gaineratu duteenez, halako erasoek "gero eta zentzu gutxiago dute eta geroz eta tokiz kanpago daude". Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen batzordean gaitzezpen adierazpena onartu zuen.

+[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**>>****Alonso Ahal Duguko zuzendaritzan**

Nafarroako Ahal Duguko barne prozesua egin du idazkari nagusia eta Herritarren Kontseiluko kideak aukeratzeko. Prozesuan izena emandako bozekin aukeratu dira Herritar Kontseiluko 27 postuak. Haietako bat, 19.a, Virginia Alonso Aparicio altsasuarrarendako izanen da. Alonso Eduardo Santosen hautagaitzarekin aurkeztu zen. Eta, hain zuzen, diputatua izan da idazkari nagusi kargurako aukeratu izan dena. 28 botoko aldea ateradi orain arte idazkari nagusi izan den Laura Perez Ruanori. Hirugarren hautagai Fran Espinosa zen.

Alonsok azaldu digunez, euren hautagaitzak "lidergo korala, talde indartsua, arduratsua eta ekimena duena" proposatu du. Haiek "zirkuluak eta udalgintza baliabidez hornitzeko apustu sendoa" egin nahi dute, "gertuko burujabetza" sustatuz.

**>> Altsasu****Sozialisten boto guztiak Sanchezen alde**

Altsasuko talde sozialistako militanteen %100ak Pedro Sanchez idazkari nagusi izateko botoa eman zuten. Eta haien modura PSOEko 187.831 militanteen erdiak. Alderdiko primarioen bidez Sanchez idazkari nagusi izendatu dute militan-



teek, baroiek duela 8 hilabete dimisioa ematera behartu eta gero. Juan Migel Perez Hurtado zinegotzi sozialistak esan digunez, Sanchezekin "ezkerrerako norabidea berreskuratzea" espero dute. Horretan "hutsik ez egitea espero dugu". Gaineratu duenez, "jendea ilusionatuta dago, horrek inporta du".

Igandekoa eta gero egutegi bete dute militante sozialistek. "Aste honetan asanblada eginen dugu eta Iruñeko batzarrerako bi delegatu izendatuko ditugu", azaldu digu Perezek. Izan ere, PSOEk zuzendaritza berria, Batzorde Exekutiboa, garagartzaroaren 17an eta 18an aukeratu du. Nafarroak zortzi ordezkari bidaliko ditu. PSNren primarioak garilaren 16an izanen dira eta 22an Kongresu Erregionala egin liteke. Udaren ondoren herrietako batzarren txanda izanen da.



## » Altsasu / SAKANA

# Frankismoari buruzko emari handiko iturria, eskura

**Altsasuko institutuko ikasleek ibarreko adinduei egindako elkarrizketak eta sortutako txostenak Altsasuko Udalaren esku utzi ditu. Beka deialdia eginen du udalak urtero materialean oinarritutako ikerketa egiteko**

Javier Casteig Barandiaranek, Altsasu institutuko zuzendariak, eta Javier Ollo Martinezek, Altsasuko alkateak, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten herenegun. Hala, hemendik aurrera institutuko DBHko 4. mailako ikasleek (15-16 urte) Gogoan proiektuaren barruan egindako 300 bat elkarrizketak bi erakundeen jabetza izanen dira. Historia ikasgaiaren ikasleek euren inguruko adinduei 1936ko estatu kolpearen ondorengoaz eta Francoren garaiko bizimoduaz egindako elkarrizketak dira.

Hitzartutakoaren arabera heldu den hilabete akaberarako bai Altsasuko baita Sakanako udal guztiek ere, sortutako material guztien inbentarioa jasoko dute. Materiala, hori bai, Altsasuko udal txostenak erakundeetara bidaltzeko daude. Altsasuko Uda-

lak jasotako material hori udal liburutegian edo jendaurreko beste toki batean jartzeko aukera izanen du, betirako edo aldi baterako. Beti ere, bi erakundeak ados jartzen badira. Hala egiten bada, udalak institutuko ikasleek egindako lana publikoki aitortu beharko duela dio hitzarmenak.

Azkenik, bi erakundeek adostu dute Altsasuko Udalak 2018tik aurrera beka deialdi batekin egiten duela. Institutuaren sortutako materialean oinarrituta eginen da ikerketa-lan hori eta behin bukatutakoan hura argitaratzeko aukera izanen da. Beka 700 eurokoa izanen da.

## Adierazpenak

Ikasleek udaletxera egindako bisita batean jaso zuen Ollok Gogoan proiektuaren berri. Interesa azaldu eta Ander Leon irakasleak hitzarmena egiteko aukera aipatu zion. Udalaren historia-memoria batzordean aztertu ondoren egoki jozen hitzarmena. Institutuko Geografia eta Historia Departamentua-



Casteig eta Ollo hitzarmena sinatzen, Leon eta Gaston lekuko direla.

rekin harremanetan segituko dute la gaztigatu zuen alkateak, "esaterako beka deialdia egiteko". Casteigek proiektuarekin segitzeak duen garrantzia aipatu zuen.

Nafarroako Gobernuako Bake eta Bizikidetzaz Zuzendaritzako historia-memoria ataleko buru Josemi Gaston hitzarmenaren sinaduraren lekuko izan zen. Gastonek gogorarazi zuen egitasmoa Geronimo de Uztariz Institutuak antolatutako ahozko iturrien inguruko kongresu batean abiatu zela, 2005eko irailean. Alaitz, Lekaroz edota Iturrana institutueta mar-

txan dagoela azaldu zuen. Baina Lekarozen eta Altsasun egindako lanak nabarmendu zituen.

Gogoan proiektua bere departamentuaren bakearen eta elkarbizitzaren aldeko memoriadun eskolak egitasmoarekin bat egiten duela gaztigatu zuen. Euren asmoa halako esperientziak ikastetxe gehiagotatik ezartzeko nahia da, horregatik, berriki prestakuntza saioak antolatu dituzte. Gastonek azaldu zenez, "historia-memorian transmisioa gako da. Aurreneko aldia da halako hitzarmen baten bidez erakundetzen dena. Etorkezunera

## Metodologia

Ikasleek, bikoteka, adineko pertsona bat elkarrizketatu behar zuten. Aurretik, galdetegi elkarrekin osatu eta, besteak beste, elkarrizketa eta txostena nola egin ikasten dute ikasleek. Frankismo garaiko sei gairen inguruko galdetegiarekin joaten dira. Ordu bat inguruko elkarrizketa horretan jaiotza-haurtzarora (eskola), gazteria (bikote harremanak, ezkontza), eliza, moda, aisia eta kontsumoa, politika (gutxien jasotako atala) eta lana (ordaindua, ez ordaindua, emakumeena...) galdetzen diete. Elkarrizketa bideoan edo audioan jasotzen dute. Jasotako informazioarekin ikasleek txostena osatu beharra dute. Han honakoak jasotzen dira: fitxa teknikoak, pertsonaena, elkarrizketaren transkripzioa, euskara batuko laburpena eta guztia jasotzen duen CDa edo memoria.

proiektzioa ematen die eta beste erakunde batzuei bidea zabaltzen dio hitzarmen honek". +www.guaixe.eus

## "Ikusten dute historia dela bizitutakoa kontatzea"

### Ander Leon

#### Gogoan proiektuko koordinatzailea

Alfredo Alvaro Igoa

#### Zer da Gogoan proiektua?

Programa didaktikoa da, ikasleek egiten dituzten elkarrizketetan oinarrituta dago. Guk Sakanan frankismo garaiko eguneroko bizitza gaia planteatzen diegu. Ikasleekin galdetegi bat adosten dugu eta bakoitzak, edo binaka, edadetu batik elkarrizketa egiten diote. Hainbat atal ditu elkarrizketak eta, gutxi gorabehera, ordu batekoa da. Bai grabazioa, bai transkripzioa, bai laburpen bat, bai atxikitutako beste dokumentu batzuekin guri eman behar dizkigute. Bederatzi urte dararamagu eta 300 testigantzatik gorako artxibo bat sortu dugu.

#### Zein helbururekin hasi zen Gogoan proiektua, hemen, institutuan?

Lehenik esan beharra dut Altsasuko proiektu bat ez dela, Sakanako guztikoa baizik. Testigantzak ez dira bakarrik Altsasukoak. Ibar guztiko ikasleak ditugu. Orduan, herri askotako dokumentuak ditugu. Helburu asko ditu proiektuak. Aurrera, historia geletatik atera. Jaki-tea historia hemendik kanpo dagoen zerbait dela eta eragina izan duena beraien bizitzan eta beren arbasoen bizitzan. Hau da, frankismoan gerra zibil bat egon zela ikusten badugu, oinarritzko ez dakit zein lege egon zela, edozer gauza, horrek egunerokotasunean zer

eragin zuen oharrekoa. Orain arte, historia zerbait arrotza balitz bezala ikusten dute, beraiekin zerikusirik ez duena. Honekin ikasten dute ezetz, ikasten dutena gertutasun bat daukala. Bestalde, ikerketa bat nola egiten den ikasten dute. Hau da, haiek ikertu, informazioa sortu eta gero niri prestatuta eman behar didate. Arlo teknikoak ere oso inportantea da. Horrekin batera, Sakanan garai bateko lekukotasunekin artxibo bat sortzea. Etorkizuneko historialariek, agian, Sakanan nola bizi zen jakin nahiko dute. Egunkariak, legeak, udaleko aktak... dokumentu ofizialak. Baina, horretaz aparte, sortu dugun artxibo honekin beste iturri mota bat izanen dute, jendea egunero nola bizi zen. Nik uste dut hori ere lagungarria izanen dela.

#### Iturriak sortzen jarri dituzu, materia gabeko ondarea biltzen.

Hori da. Berain aitona-amonak historia bat dute. Gure lana historia hori ateraraztea izan da. Aterarazi eta gero, jaso eta gorde. Hau da, pertsona horiek daukaten historia, beraiek, ikasleek ez badute jasotzen eta gordetzen, inork ez du eginen. Eta laster, edo beranduago, pertsona horiek, denok bezala, hilko dira eta haiekin batera haien testigantzak. Baina, zorionez, Sakanako 300 pertsonen testigantza hemen gordeta daukagu. Betirako egonen dira, beraiek egon edo ez. Eta hori da

ikasleen meritua, ezer ez dagoen tokitik artxibo bat sortzea.

#### Adinduek elkarrizketa eske joaten zaizkien ikasleei harrera ona egiten diete?

Denetarik dugu. Batzuk kontaktzeko desiratzen ari dira. Beste batzuk hasieran ez dute nahi baina gero amore ematen dute. Beste batzuk gogoz kontra, baina egiten dute. Badugu batzuk hasieratik ezetz esaten dutenak eta ez dutenak egiten. Orduan beste bat bilatu beharko dute.

#### Ikasleak lana eginda, zer moduz?

Pozik eta harro. Harro batez ere. 100 orriko lan bat ikusten dute. Grabazioa. Zenbat ordu pasa dituzten. Lanaren fruitu fisikoa ikusten dute. Ematen dutenean poz-pezik daude. Gainera, notaren zati inportantea da. Ikusten dute, gainera, lan honek gizarte onarpena duela. Ez dela gelarako lan bat, beste batzuk bezala. Gurasoak inplikatu daude, aiton-amonak; osaba-izebak



Ander Leon, agerraldian azalpenak ematen.

ere askotan etortzen dira zertan ari diren ikustera; lehengusuak eta abar. Bada beste gai bat familian tratatzekoa. Askotan belaunaldien arteko lotura faltaz kezkatzen gara. Hau belaunaldien arteko zubi bat da. Hori ere baloratzen dute.

#### 300 bat elkarrizketa eginda. Ikasleak bai. Iturriak gelditzen dira?

Gero eta gutxiago. Horregatik, proiektu honekin segitzeko litekeena da gaia aldatu behar izatea.

Hasierako frankismoa bizi izan zen jendea oso zahar dago jada, oso gutxi gelditzen dira eta gelditzen diren asko eta asko elkarrizketatu ditugu. Segituz gero, gaia aldatuko genuke. Beste proposamen batzuk daude: garai bateko eta egungo migrazioa; trantsizioa; euskararen inguruko kontuak, baina horrek mugatuko digu... Ahozko historia oso interesgarria iruditzen zaigu. Segitzen oso interesatuta gaude. Ziurrenik gaiari buelta bat eman beharko genioke. +www.guaixe.eus

**Txalaparta**

**Taberna**

**948 467 070**  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**PORTUKO**  
OKINDEGIA

ogiaren artisauak

Altsasu  
948 563 822  
Lantegia  
948 467 153  
Etxarri Aranatz  
948 460 988

# 40 tanatorios IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

## Ramoni Mujika Mazkiaranen sendia

Une latz hauetan gurekin  
eta gure ondoan egon  
zareten guztiei...  
mila esker!!!

Juan Ignacio Erdozia Larraza  
Fidel Larraza Marin  
F. Javier Guruzeaga Etxarri  
Felipe Ceberio Maiza  
Jose Antonio Jaca Goñi

1953ko Etxarri Aranazko kintuek

## Oroigarriak egiten ditugu

948 564 275  
Foru plaza, 23-1 Altsasu  
gk@gkomunikazioa.es

### Marmoles San Miguel

- Hilarriak
- Kolunbarioak
- Gurutzeak
- Estelak
- Hilobiak
- Panteoiak
- Inskripzioak
- Grabatuak
- Panteoien zaharberritze  
eta garbiketa

948 260 098 - 683 136 423

Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.  
Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era  
edo hots egin 948 564 275 telefonora



M<sup>a</sup> del Mar Albarrazin Razkin  
Antonio Goikoetxea Fernandez  
M<sup>a</sup> Angeles Ayestaran Goñi  
M<sup>a</sup> Angeles Sanz Aizpun  
Ismael Igoa Ezkutari  
Antonio Jimenez Mendiola  
Fidel Salinas Ferrer

Parrandan ere gogoan zaituztegu.  
1960ko kintoak

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, 8€ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

### LANA | NEGOZIOAK LAN ESKAINTZAK

Arruazuko ostatuan zerbitzari euskaldun bat behar da. Larunbat eta igandetarako. Tel 650 153 240.

Arbizuko kanpin-ean bi sorosle behar dira uztaile eta abuzturako. Tel 848 470 922 edo [info@campingarbi-zu.com](mailto:info@campingarbi-zu.com)

Arbizuko Karrika tabernan zerbitzari euskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Tel 948 462 137

Zerbitzaria behar da Altsasuko Dantzaleku tabernan udan lanean aritzeko. Deitu 667 35 35 03ra

### HIGIEZINAK ETXEBIZITZAK

EROSI

Etxea edo borda birgaitzeko eta lursailarekin erosi nahi dut. Tel 652 06 40 43.

### LOKALA

ERRENTAN EMAN

Lizarragako elkarteak. Elkarteak alokatzen da San Adrian jaietan (ekainaren 17tik 19ra). Enkantea ekainaren 4an

eguerdiko 12:00etan izango da. Gutxienez 600 €.

Urdiango igerilekuak hartzeko interesatu guztiak, ekainak leian, ostegunean, arratsaldeko 20:30ean Aitziber elkartearen aurkeztu beharko dira. Talde bakoitzak bere ideia programa entregatu eta aurkeztu beharko du. Interesatuak gurekin kontaktuan jartzeko aitziberelkarteak@gmail.com -en bidez. Junta.

### IKASTAROKAK

CC. Digitala eta sare sozialak. Altsasun, dohain. 20 ordu. Lehenetsuna langileek izanen dute. Ekainaren letik 8ra, 16:30-20:00. Izen-ematea [www.tiss.es](http://www.tiss.es) edo 948 23 53 99.

### OHARRAK

Olatzagutiko irakurle taldea. Amity Gaige-ren Las buenas intenciones liburua hizketatzeko elkartzeko da garagarriaren 9an, 21:00etan, Olatzagutiko liburutegian.

Odol-emaileak. Lakuntza: ekainaren Sean, 17:00-20:30

Bakaikuko Gure Esku Dago. Argazki erakusketak prestatzen ari da. Giza katetik Bakaikuko herri galdeketa

bitartean egindakoen argazkirik dutenek bakaiku@gureeskudago.eus-e postara edo 634 451 040 telefonora bidaltzeko eskatu du.

Literatura irteera. Garagarriaren 4an, igandean, Zugarramurdira joateko txangoa eta bazkaria antolatu du Arkatz liburu-dendak. Ibon Martin idazlearekin batera El último akelarre liburuko parajeak ezagutzeko aukera izanen da. Altsasuko liburu-dendan eman behar da izena. 30 €.

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Garagarriaren 8an, ostegunean, 19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian elkartzeko da Miren Gorrotategiren 33 ezkil liburua hizketatzeko.

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta kutxetan zabalduzako kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeak eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazki-

dea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 246098511.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es)

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 beheak, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa

jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com)

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroko euskalkantutu@gmail.com edo [amadominguez@tafallaika.org](mailto:amadominguez@tafallaika.org) e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

### OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Argazki kamara digital txiki bat Arbizuko Izar Ono jatetxearen inguruan galdu nuen maiatzaren 7an. Zorro grisa du. Deitu 687 447 915 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-

zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

### JAIOTZAK

• Andoni eta Jon Gonzalez Paz, maiatzaren 15ean Etxarri Aranatzan.

### EZKONTZAK

• Joseba Razkin Lazkoz eta Nerea Galarza Reparaz, maiatzaren 19an Lakuntzan.

### HERIOTZAK

• Eusebio Laviñeta Hualde, maiatzaren 23an Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

## SASKIBALOIA

**IGANDEAN SASKIBALOIA ZIORDIAN:** Zior-  
diko Udalak antolatuta, gizezkoen au-  
rreminibasket mailako partida jokatu

dute Altsasuko CBASke eta Aguraingo  
Saskibalo taldeak igandean, goizeko  
11:00etan, Ziordiko Txipudi inguruan.

## Mendia

Beriainera, Otxoa de  
Olza gogoan

igandean, 12:00etan, monolitoan

2008ko maiatzaren 23an zendu zen  
Iñaki Otxoa de Olza, Annapurna jaisten  
ari zela. Sakanako lagunak haren  
oroimenez igandean 12:00etan bil-  
duko dira, Beriaingo magalean, Lezi-  
za aldera, zendutako mendizalea-  
ren alde dagoen oroigarrian.

## Pilota

## Irurtzunen, finalerdiak

XXV. Irurtzun Pilota Txapelketan  
atzo eta herenegun senior maila-  
ko final laurdenak jokatu ziren. Pro-  
mesen mailan, berriz, bihar, larun-  
batean, finalerdiak daude jokoan.

## Promesen finalerdiak:

Larunbatean, 11:00etan,  
Irurtzunen:

Ruiz de Larramendi-Ruiz de Larra-  
mendi / Gil-Garate  
Nazabal-Arbizu / Canabal-Andueza

San Migel Pilota  
Txapelketa

Olastiko elkarteak antolatutako tx-  
apelketako 3. jardunaldian guztira 6  
partida jokatu dira asteburuan.

XLVI. San Migel  
Txapelketa: 3. saioa

Ostiralean, 20:30ean:

**3.maila:** Lauzurika-Muñoz /  
Julen-Aitor

**2.maila:** Pablo-Koldo / Olmos-  
Arbizu

**1.maila:** Zelaia-Grados / Beloki-  
Aies

Larunbatean, 17:00etan:

**3.maila:** Pleito-Ondatz / Mazkia-  
ran-Castellanos

**2.maila:** Ansotegi-Etxeberria /  
Azurmendi-Elola

**1.maila:** San Roman-Igoa / Oter-  
min-Aldatz

## Pilota

Joanes Bakaikoa,  
txapelkunorde handia

Bakaikoa: "egindakoarekin kontentu nago"



"Axier atera da faborito. Ni zentratuta nengoen, baina bera tiroa bezala hasi da: guztia ater-  
ratzen zitzaion ongi, oso ongi jokatu du eta alde handia atera dit. Baina kontrako 11 eta 2  
horri buelta ematea lortu dut, pare pare jarri gara, eta partida izugarri gogortu da. Tanto  
gogor batzuk bere aldera erori dira eta merezimendu osoz irabazi dit" azaldu zuen aurre-  
lari etxarriarrak. "Partida gogorra eta partida ona izan da. Pilota zaleak gustura geratu dira,  
hori da inportantea. Egin beharreko esfortzu fisikoa eta mentala oso handia izan da. Bai-  
na sekulako giroa zegoen Labriten, eta ni eta Axier animatzera etorri diren pilota zaleei  
eskerrik beroenak eman nahi dizkiet. Giro ikusgarria zegoen eta horrela oso gustura jokat-  
zen da. Batetik, triste nago galdu izanagatik baina hotzean pentsatuz, lehen urtea izateko  
kontentu nago egindako txapelketarekin eta finalarekin. Axi zoriandu nahi dut sekulako  
partida jokatu duelako eta orain, aurrera. Hobetzen jarraitzeko eta topera entrenatzeko  
gogo handiekin nago" nabarmendu zuen Bakaikoa.

Promesen mailako buruz buruko  
finalean, lehen mailako ikuskizu-  
na eskaini zuten Joanes Bakaikoa  
etxarriarrak eta Axier Arteagak.  
Arteagak jantzi zuen txapela, eder-

ki kostata. Debutatu zuenetik hiru  
hilabete t' erdi pasata, orain arte  
egindakoarekin kontentu egoteko  
arrazoi asko ditu Bakaikoa. Eto-  
rriko dira aukera gehiago.

## Txirrindularitza

Etxarri eta Aralar, puntako  
txirrindularien bilgune

Cerveloko Ashleig Moolmanek  
irabazi du Emakumeen Bira

Bazirudien Orica taldeak XXX.  
Emakumeen Bira lotua zuela,  
larunbatean Etxarri-Aralarko San  
Migel etapan emandako ikuskizu-  
narekin, baina Cervelo taldeko  
Ashley Moolmanek igandean eta-  
pa eta Birako sailkapen orokorra

irabaztea lortu zituen. 13 segun-  
do atera zizkion Oricako Anne-  
miek Van Vleuteni.

Larunbatean Etxarritik atera  
zen Bira. Giro polita izan zen eta  
Sakanako emakume txirrindula-  
riek moztu zuten irteerako zinta.  
Hain zuzen ere Oricaco Van Vleu-  
ten izan zen etapako irabazlea.

## Aretu Futbola

Magna Gurpea Xota, play-  
offetako finalerdietan

Lehen mailako areto futboleko  
titulua erabakitzeko play-offetara-  
ko finalerdietan dago Magna Gur-  
pea Xota, final laurdenetan Jaen  
menpean hartu eta gero. Joaneko  
partida 3 eta 2 irabazita, aurreko  
ostiralean itzulerakoa jokatu zen,  
Jaenen. Seina berdinduta, penalti-  
tietan Jaen gailendu zen eta ber-  
dinketa hausteko hirugarren par-

tida jokatu behar izan zuten igan-  
dean. Imanol Arregiren mutilek  
goitik behera agindu zuten eta 3  
eta 5 irabazi zuten.

Finalerdietan, berdeek Movis-  
tar Inter talde ahaltsua dute aur-  
kari. Joaneko partida gaur joka-  
tuko dute, 21:30ean, Madrilen  
(Eurosport) eta itzulerakoa aste-  
lehenean, 21:30ean, Iruñean.

## Osasuna-Xota hitzarmena, sinatuta



Asteazkenean sinatu zuten urte bateko iraupena duen hitzarmena Osasunako presidente Luis  
Sabalzak eta Xotako presidente Tatono Arregik. Irurtzuno taldearen izena Club Atlético Osa-  
suna Xota izango da. Osasunak 112.000 euro lortuko ditu Xotarendako, babesle akordio-  
en bidez. Osasuna Xotak berdez jokatu du eta bigarren ekipazioa gorria izango da. Bi taldeen  
armarriak agertuko dira. "Osasunaren babesak lasaitasuna eman digu" azaldu du Tatono.

## Mendi orientazioa

163 ikaslek osatu zuten  
Sakanako orientazio proba

Sakanako ikastetxeek eta Aguraingoak  
antolatuta zuten, Mank-en laguntzarekin

Maiatzaren 12an jokatu zen Saka-  
nako orientazio proba, Arbizuko  
basoan, Zubaat eta Sandindegi  
aldean, Sakanako ikastetxeek  
-Altsasuko Institutua, Andra Mari  
eta Iñigo Aritza ikastolak- eta  
Aguraingoak antolatuta, Mank-en

laguntzarekin. Guztira 163 ikasle  
ziren, DBHko 4. mailakoak, ikas-  
tolen kasuan 3. mailakoak.

"Taldea gehienek baliza guztiak  
aurkitu zituzten, denboraren  
barruan, talde lana eginez eta elkar  
lagunduz. Ikasleak gustura geratzen  
dira, erronka bete eta gero" azaldu  
zigun Mank-eko kirol teknikariak.

**sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda  
Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



## Atletismoa

## Bikoteka korrika egitera animatuko gara?



**Andra Mari ikastolaren IV. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria jokoan, bihar, larunbatean, 19:00etan**

Andra Mari ikastolaren IV. Binakako Lasterketa, Naparpellet Saria bihar jokatu da, larunbatean, Etxarri Aranatzan, 19:00etatik aurrera.

## 5 maila+sokatira

5 kategoria ezberdinetan jokatu da bikotekako lasterketa hau, Haur Hezkuntzako umeetatik hasita, helduetaraino. Haur bakoitzak heldu

batekin parte hartu ahal izango du eta L.H.-ko 5. eta 6. mailakoek, aldiz, nahi duten bezala moldatu ahal dituzte bikoteak. Berrikuntza moduan, 2 eta 4 urte bitarteko haurrek haien moto txikietan osatuko dute Molto lasterketa.

Guztira 5 lasterketa izanen dira eta, bukaeran sokatiran lehiatuko dira gazteak helduen kontra. Bikote parte-hartzaileek argazkia ateratzeko aukera izango dute eta auzatea eta beste izango dira. Aipatzekoa da LH 5. mailatik gorako

## Andra Mari IV. Binakako Lasterketa

**19:00etan:** 2-4 urteko Molto Lasterketa (100 m)

**19:15ean:** Haur Hezkuntza (200m)

**19:30ean:** Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (400 m)

**19:40ean:** Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila (800 m)

**20:00etan:** Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera (1.609 m)

**Sokatira:** Gazteak vs helduak

en artean, taldeka izena emanez gero, Urbasa Abentura parkerako sarrerak zozketatuko direla.

## KIVArekin koloreak

Lasterketa KIVA proiektuarekin lotu nahi da; besteenganako errespetuaren alde eginez; horregatik, KIVA koloreekin jantzita joateko gonbitea egin du Andra Mari: berdez, urdinez, horiz edo gorritz.

## Izena emateko

Proba aurretik, Etxarriko udal txeko estalopean (4 euro).

## Gimnasia erritmikoa

## Iskiza, dominez lepo

Sakana Iskiza taldekoak Nafarroako Txapelketan maila bikaina ematen ari dira. Maitane Agirre, Miriam Martin, Uxue Zubeltzu eta Irati Begiristainek dominak lortu dituzte, bakarka, eta taldeka, hiru domina ekarri ditu Iskizak

Egun 50 gimasta inguru trebatzen dira Iskizan, Olaia Agirre, Cristina Nuncio, Maria Remolina, Ainhoa Imaz eta Olaia Granizo monitoreen esanetara. Eskolakoak trebatzeaz, aldiz, Josune Ruiz arduratzen da. Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan, Nafar Kirol Jolasetan, lana bikaina egiten ari dira.

## Banakako emaitzak

Banakakoan, Iskizako 16 gimasta lehiatu ziren, benjamin, kimuen, haurren, kadeteen eta jubenilen mailatan. Lan ona egin zuten. Aipatzekoa da 3. mailan, haurren kategorian Maitane Agirre lehen sailkatu zela. Kadeteetan ere podiumaren gorenera igo zen Iru-

ne Argüelles eta jubenilen mailan Miriam Martin hirugarrena izan zen. 4. mailan, benjaminetan Uxue Zubeltzu bigarrena sailkatu zen. Bukatzeko, 1. mailan, Espainiako mailan lehiatzen diren gimnasten mailan, senior kategorian Irati Begiristain bigarrena sailkatu zen pilotarekin eta zintarekin.

## Taldeka, hiru domina

Nafarroako Taldekako Txapelketara 4 talde aurkeztu zituen Iskizak: benjaminen taldea, kimuena, haurren mailakoa eta jubenilena. Txapelketako 4. mailan, benjaminetan Iskiza taldeak 2. postua lortu zuen eta kimuen mailan, aldiz, txapelduna izan zen Iskiza. Jubenilen mailan podiumaren 3. mailara igo zen Iskiza. Zorionak guztiei.

## Ikasturte bukaerako 2 erakustaldi



Iskiza Sakana taldeak kurto bukaerako erakustaldia prestatu du ekainaren 2an, ostiralean, 17:30ean Zelandin. Horretaz gain, ekainaren 4an, igandean, 12:00etan, erakustaldi berezia egingen dute Altsasuko Iortia Kultur Gunean.

## Kirolegia

## Bizikletarekin gozatzera

**Mank-en bizikleta festa igandean ospatuko da Etxarri Aranatzan. Bizikleta ibilaldia, jolasak, kirol material trukea eta bizikleta konpontzeko tailerra izango dira**

Altsasu eta Irurtzuni lekukoa hartuz, aurten Etxarri Aranatzek hartuko du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak antolatutako bizikleta festa. Horretarako, Etxarri Aranazko Udalaren, Barranka Txirringularitza Taldearen Berri Bikes eta Muruzabal bizikleta denden eta Sakanako ikastetxeen eta guraso elkartearen laguntza izan du Mank-ek.

Adin guztietarako antolatuta dute bizikleta festa, baina 10 urtetik beherakoek nagusiek lagunduta parte hartu beharko dute.

## 9 km-ko ibilaldi polita

Bizikleta ibilaldian ezingo da parte hartu izena eman gabe –aurretik, Mank-en (948 464 866)– eta mendiko bizikleta eta kaskoa eman beharko dira. Martxa aurretik bizikleta doitzea aholkatzen du Mank-ek. Segurtasunagatik, partaideek ibilbidea jarraitu beharko dute momentu oro. 9 km-ko buelta izan-

## Bizikleta festa. Igandean, Etxarri

**9:30ean:** Bizikleta ibilaldia. 2. orduko bizikleta ibilbide erraza. Bukaeran partaide guztien artean opariak zozketatuko dira.

**11:30ean:** Auzatea eta kirol materialaren trukea (patinak, raketak, bizikletak, patineteak, palak, baloiak, esku pilotak, eskiak...)

**12:00etan:** Herri jolasak eta bizikleta konpontzeko tailerra.



go da. Etxarriko beheko aldetik Bakaikuko Guerra Hermanos fabrikara joango dira txirringulariak. Han trenbidea pasa ondoren, Aritzalko atzekaldetik itzuliko dira, eta Zumurdiñeta industriadetik iritsiko dira Etxarriara.

## Txirringularitza

## Intersport Irabia, txapelduna



Igandean taldekako erlojupekoa jokatu zen Tafallan. Kadeteen mailan Aralar klubeko Intersport Irabiak irabazi zuen (20:38) eta junior

mailan Burundako Quesos Albeniz bigarrena izan zen (32:50). eta Intersport Irabia seigarrena (34:48). Informazio gehiago: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Irristaketa

## Sakanako Irristaketa Topaketa

**Ekainaren 17an izango da, Altsasun, baina aurretik eman behar da izena**

Sakanako irristaketa taldeen laguntzarekin, Sakanako Irristaketa Topaketa antolatu du Mank-ek,

ekainaren 17rako, arratsaldean, Altsasun. Ekitaldi irekia da, baina aurretik izena eman beharra dago, ekainaren 9ra arte, Mank-en (948 464 866).

# GONBIDAPENA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak • Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa • Osasun eta ongizate jasagarria • Yoga day • Bioterraza • Biobeauty Gunea • Show cooking • Haurrentzako aktibitateak • Zozketak...

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

## 2 · 3 · 4

Ekaina **FICOB A IRUN**

EKO ESPERIENTZIA BIZI EZAZU!

[bioterra.ficoba.org](http://bioterra.ficoba.org)

Gonbidapen hau maza eta sarreraren bidez erabili daiteke!

Ficobara, zator trenean!

(Irur-Ficoba geltokia)

**euskotren**

ANTOLATZAILEA

**FICOB A**

IRUN. GIPLUZKOA

[www.ficoba.org](http://www.ficoba.org)

P

dohainik



## EMBAJADA TALDEARI

Asteazkenean, 15:30ean, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA

Egin zure galderak [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bidez

## Olatzagutiak margolariendako deia



**H**amargarren aldiz Olatzagutiko Udalak pintura azkarreko lehiaketa antolatatu du. Garagarrilaren 11n jokatuko da haurren (11 urtera arte), gazteen (12-15 urte) eta helduen (16 urtetik gora) mailetan. Lehiaketan ariko diren margolarien euren lana Olatzagutiko udalerrian egin beharko dute, gaia herria bera, ingurua eta jendeak direlarik. Horiek koadroan islatzeko edozein teknika erabil dezakete margolarien.

Parte hartze arauak dagokienez, margolarien koadroa egiteko erabiliko duten euskarria Olatzagutiko kultur etxean aurkeztu beharko dute lehiaketaren egunean, 8:00etatik 9:00etara. Han egiturazigilua jarri ondoren, lanean has daiteke. Haurren mailan, berriz, antolatzaileek euskarriak 9:00etatik 10:00etara emanen dizkiete, toki berean. Lehiakideek euren lanak egun berean eman beharko dituzte kultur etxean, 17:00etatik

18:00etara. Eta 18:30erako lehiaketako epaia ezagutaraziko du udalak. Haurren mailan arte plastikoetako materialez osatutako hiru sari banatuko dira. Gazteen mailan, berriz, arte plastiko, argazkilaritza edo kirol materialek 150 euroko balea. Eta sari bera herriko aurreneko gaztearendako. Helduen mailan, azkenik, 500 euroko saria, 250 euroko akzesita eta aurreneko herritararendako 200 euro izanen dira.

### Izen ematea

Udaletxeko bulegoan edo 948 562 446 telefono zenbakira hots egin, astegunetan, goizez. Edo [kultura@olazti.com](mailto:kultura@olazti.com) e-posta helbidera idatziz, X. Pintura lehiaketa adieraziz. Lehiaketa egunean 9:00ak baino lehen eman daiteke izena ere. Haurren mailan garagarrilaren 8an, 14:00etan, despedituko da izena emateko epea. Argibide guztiak [www.olazti.com](http://www.olazti.com) web orrian daude.

## Hemen da vaudevillea

Larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean



**I**rurtzungo antzerki amateur zikloa despeditzeko Garestik Txilindron antzerki taldea etorriko da. *Mi mujer es el fontanero* antzezlan komikoa jokatuko dute garestarrek. Aktoreen eszenako etengabeko sartu-irtenak dituen obra hori "harriak barregin arazteko gai da". Hugo Marcos argentinarraren *Mi mujer es el plomero* antzezlanaren egokitzea da.

Istorioko dibertigarriaren protagonista Koldo da. 40 urteko gazteak emaztea galdu du ezkondu eta bi urtera. Gizon maniatikoa, haur antza eta emazte-minak jota dago. Bere egunerokotasuna naturaz gaidiko istorio batek nahastuko du: istripu baten ondorioz, iturginean berrargituko da emaztea zena eta etxera bueltatuko da. Koldoren amak, aldamenak, atezainak eta gonbidatutako emakume bat hura erotzeko lanari helduko dio, buru belarri.

## Auzmendi gitarra bakarleriaren kontzertua

Gaur, 19:30ean, Etxarri Aranazko Gure Ametsa jubilatuen elkarte

**M**ikel Auzmendi Garzandia gitarra-joleak musikaren historiaren barnako bidaia proposatu gaurko. Etxarriarrak bere gitarra kontzertua barroko garaiarekin hasiko du, Bach-en *Suite BWV 1006*ako *preludio*arekin. Klasizismoko Mauro Giulianiaren *Rossiniana 1. zbkia, op. 119* obratik XX. Mendeko musikara pasako da. Azken tarte horretan Dusan Bogdanovicen *Balkanetako sei miniatura* eta Joaquin Rodrigoren *Fantasia para un gentilhombre* joko ditu. Auzmendik orkestraren akonpainamendua grabatua eramane



du eta bera gitarra-jole bakarleri baillizan ariko da. Ordu bateko iraupena izanen du programak. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Hiru sakandar idazle nafarren lanen bilduman

**P**amiela argitaletxeak 39 idazle nafar liburua aurkeztu zuen atzo. Liburua euskarazko nafar narratiba ezaugarazteko asmoaren emaitza da. Argitaletxeko Jose Angel Iri-garaik azaldu zuenez, "Nafarroa Garaiko zein Behereko 40 idazle baino gehiagori, parte hartzeko

gonbita luzatu zitzaion. Erantzuna ia erabatekoa izan zen, oso baikorra". Emaitza 39 nafar idazlearen narrazioekin osatutako lagin zabal eta joria da. Erantzuna eman zutenen artean daude Jose Luis Asensio, Izaskun Etxeberria eta Juankar Mugartza. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Ateetako zaindariak

Bazen behin, Txinan, gure garaiko zazpigarren mende inguruan, Tai-tsung izeneko guda gizon bat. Bere herrialdea gobernu egonkorrik gabe, modu kaotikoan zihoa aurrera, jendeak egoera latzak bizi zituelarik. Gosea, indarkeria eta bestelako zitalkeriak egunero sufrizten zituzten gizon eta emakumeek. Tai-tsung-ek boterea lortzeko guda hasi zuen Txinan. Baina guda guztietan bezala, sarraski basatiak izan ziren, eta Tai-tsung-ek ere pertsona asko hil zituen bere eskuekin eta milaka ere hiltzea agindu. Bere gerlariak Txina osoa konkistatu zuten, eta bukaeran, estabilitatearekin batera oparotasuna iritsi zen gizarte osora. Tai-tsung enperadore bihurtu zen 618. urtean, Tang

Dinastia sortuz.

Baina Tai-tsunge zegoen lasai. Bere ekimenean hildako pertsona guztiak burura etortzen zitzaizkion etengabe. Ezinegonak, batez ere gauz astintzen zuen enperadorea, hildakoen mamuak bereganatu etorriko zirelakoan mendeku bila. Eta gau luze askotan zehar, lo egin gabe ibili zen Tai-tsung. Lo ezak, buruagaltzeko arriskuan jarri zuen enperadorea, eta hori zela eta, azkenean, jakitun batengana jo zuten aholkulariek, haiek ere aholkuaren bila.

- Maixu, gure enperadoreak ezin du lorik egin. Lo ezak erotuko duen beldur gara, eta gure enperadorea hiltzen bada berriro etorriko zaizkigu garai ilunak, boterea lortzeko guda hasiko baita berriz ere. - Gure enperadorea hildakoen



mamuen beldur da. Mamuak gudan hildako gizonak dira, eta beraz, hauek uxatzeko, enperadorearen bi gerlari trebeak bere logelaren atean geratu beharko dira erne, lotan dagoen bitartean. Eta horrela egin zuten. Chin Chiung eta Yu-Chih Kung, gudan trebezia handiena erakutsi zuten gerlariak, enperadorearen logelaren atean aurrean zutik eman zuten gau osoa. Eta enperadoreak berriro ere ondo loegitea lortu zuten boraldi batean. Egutero Chin Chiung eta Yu-Chih Kung gerlariak erne ematen zituzten gauak. Baina egunak aurrera joan ahala, bi gerlariak nekutzen hasi ziren, haiek ere lo egiteko behar sentitzen zutelako. Bi guda-riak guardia ezin egin zutelako ikustean, enperadoreak berriro lo egiteko arazoak izan zituen, eta nola

ez, jakitun berdinarengana joan ziren berriro ere aholkuaren bila. - Maixu, gure gerlariak ere lo egiteko beharra dute, eta enperadoreak erne ez daudela ikusita ezin du lo egin lasai. Zer egin dezakegu? - Mamu eta izpirituek jada guda-riak ezagutzen dituzte. Atean bien irudien margoa jarrita, mamuak izutu eta ez dira enperadorearen gelan sartuko. Honela, lo egin ahal izango du lasai berriro ere. Eta logelaren atean kanpoaldean, bi gerlarien irudi basatiengana margoitu zuten, armak eskutan zituztela. Enperadoreak lasai asko egin zuen lo geroztik eta 90 urte bizi izan zen. Txinako landa etxe eta tenplu askotako atean aurkitzen dira bi guda-ri hauen erretratoak margotuta, izpirituen etsai eta uxagarriak direlakoan.

# Sarituak Pop-Rock lehiaketarekin pozik

Sakanako Pop-Rock lehiaketan saritutako Garabatos eta Alerta Gorria taldeei [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) web orriaren bidez elkarrizketa digitalak egin zaizkie azken bi astetan. Zaleek bidalitako galderei erantzun die tebi taldesarituak. Hirugarren talde saritu bat ere bada, Embajada. Haiek on-line elkarrizketan heldu den asteazkenean parte hartuko dute, 15:30etik aurrera. Nahi duenak bere galderak bidal ditzake.

## Alerta Gorria

Asier Reparaz eta Ander Garcia izan ziren irakurleen galderei erantzun zietenak. Sakanako Pop-Lehiaketaz galdetuta esan zuten ibarreko taldeak "elkartzeko eta tarte on bat pasatzeko aukera izatea izugarria" iruditzen zaiela. Sakanako taldeei bultzada emateko aukeratzat jo dute. Taldeekin eta jende guztiarekin egin den "giro paregabea" nabarmendu dute. Lehiaketak segida izatea ere nahi lukete.

Arbizuko taldeak bi sari lortu zituen eta diskoa grabatzearen eta Hatortxu Rocken jotzearen artean aukeratu behar izan zuen. Azken hori aukeratu zuten, "duen helburuekin bat egiten dugulako eta bestetik Alerta Gorriaren oihartzuna handitzeko asmoz". Jaialdian joz ametsa beteko dutela aitortu dute. Hala ere, zein kanta joko dituzten ez dute zehazturik.

Alerta Gorriko kideek jakina-



razi zuten kantu berriak sortzen hasi direla, "sekulako indar eta gogoekin gaude". Udazken akaberran ateratako diskoak izandako harrerarekin "oso pozik" daudela aitortu dute eta diskoaren ale guztiak saldu dituztela gaineratu dute. Urtean 30 bat kontzertu ematen ditu Arbizuko taldeak eta diskoak horiek lortzen lagunduzien.

## Garabatos

Iñaki Gasco Claverrek eta Asier Palomino Cidek Sakanako Pop-Rock Lehiaketaz zera esan zuten: "oso ideia ona iruditu zitzaigun lehen momentutik eta aukera paregabea izan da Sakanako talde guztiak elkarezagutzeko. Aurten lehe-

nengo urtean izan den heinean, espero dugu, gehiago egiten bada talde desberdin eta gehiago animatzea". Esperientzia "ezin hobea" izan zela nabarmendu dute, baita talde guztien maila altua ere.

Lehiaketan diskoa grabatzeko 40 orduko estudio egonaldia eskuratu zuten. Garabatoskoek jakinarazi zuten, aurten diskoa grabatzeko asmoa zuten. Beraz, Lakuntzako saria primeran heldu zaie. Irailean sartu nahi lukete Altsasuko Del Reyno estudioan. Baina ordurako abesti gehiago sortzeko asmoa dute, grabatuko dituzten kanta guztiak haienak izanen baitira. Batzuk "kañeroogak" izanen direla aurreratu dute.

Garabatoskoek txikitatik rock and rolletik edan dutela gaztigitu zuten elkarrizketan. Baita aitortu ere "rock and rolla, gaur egun, ez dagoela gazterian zabalduketan Sakanan gutxiago entzuten dela". Taldeaz esan zuten kide bakoitzak musika gustu desberdinak dituela, "baina elkarrekin eroso gaude eta azkar ulertzen gara". Haiek sortutako bost kanta dituzte, guztiak ingelesez kantatuak, Irati abeslaria "ingelesez abestean gusturago sentitzen" delako. Baina beste hizkuntzetan abestea ez dute baztertu. Haien helburua argi dute: "elkartzen garen aldiro egiten dugunarekin disfrutatzea eta denok eroso sentitzea da".

## Musikalak, umorez eta ahots hutsez

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Demode Quartetek bere hirugarren ikuskizuna *Todos los musicales o casi* aurkeztera etorriko da. Laukoteak pertsonai bitxi banaren papera jokatuko du: musikalen negozioan tokia bilatzen duen abeslari hotz eta kalkulatzaila, aitortzarik izan ez duen musikal abeslari aditua, musikalen bitxikeria absurdoenak dakizkien abeslari gogotsu eta moldakor emakumezko paper guz-

tiak egiten tematuta dagoena eta baxua, zaputza eta arraroa, ahoa zabaltzen duen bakoitzean bere kideak nahastu eta despistatzen dituen.

Lauren artean, ahots hutsez, zuzenean abestuko dituzte garai guztietako hogeitik gora musikal ezagunen bertsio dibertigarriak eta originalak. Aurreko mi muntaiekin alderatuta aldaketa dakar Demode Quarteten azken ikuskizun honek. Alde batetik, ikuskizuna erretroproiektorearekin egiten da. Atzean ikusten diren iru-



diek musikal bakoitzaren doinuak girotuko dituzte. Gainera, aktoreak beraiek irudietan bertan ere agertuko dira hainbat paper joka-

tzen eta guztien artean dantza talde bitxia sortuz. Bestalde, beraiek egindako grabazioen bidez, ahots orkestra ugaria eratuko dute.

## Zirika Zirkus Leganeseko jaialdian

Gijongo Fetem jaialdian *Tren geltokia* otsailean aurkeztu ondoren, Zirika Zirkusek ikuskizun bera Leganeseko Plaza activa jaialdian aurkeztuko du. Jaialdia aurreko asteburuan hasi eta honetan despedituko da eta bertan dozena bat konpainia parte hartzen ari dira. Zirika Zirkusekoek bi ema-

naldi eskainiko dituzte, aurrenekoa, Matheo Luances plazan, bihar, 20:00etan. Igandean, berriz, Leganes iparraldeko Laberinto plazan ariko dira, 12:00etan. Tren geltokia publiko guztiendako ikuskizuna, zeinetan antzerkiak, umoreak, dantzak eta zirkuak bat egiten duten.

## Erdoziaren artikulua FLVn

Fontes Linguae Vasconum (FLV) aldizkariaren 122. zenbakia kalean da eta argitaratutako artikuluen artean Jose Luis Erdoziak idatzitako *Etxarriako hitano-alokutiboa* artikulua da. Erdoziak lanean azaldu duenez, artikulua abiapuntua 2015eko apirilean herriko gazte-txean etxarriari buruz emanda-

ko hitzaldia dago. Gazteei, emakumezkoak gehienak, jakin-min handiena hitanoak sortu ziela kontatzen du eta hortik abiatu zela orain argitaratu den artikulua idaztera. Bertan Etxarri Aranzko euskararen erabiltzen den hikako moldearen nondik norakoak aztertzen dira. Artikuluan Erdoziak, besteak beste, testuingurua eman, adizkiak tauletan jaso, egungo ereduak eman eta Joseba Sarrionaindiaren testu bat etxarriera alokutibora moldatu du.

## Non erabili

### JUGA TAILERRAK

#### ARBIZU

Olio aldaztean %10eko deskontua filtroetan.

### ENERITZ ILEAPAINDEGIA

#### ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

### EKIN

#### ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

### IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

#### ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisia doan.

### IOSUNE MARAURI

#### ALTSASU

Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

### KIKI ARGAZKI DENDA

#### ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

### TANIA ARRAINDEGIA

#### LAKUNTZA

50€ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

### LAKUNTZAKO OSTATUA

#### LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

### ZURE EKO DENDA

#### IRURTZUN

€10 eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

[www.guaixe.eus-en](http://www.guaixe.eus-en) zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 15%	euria: 10%	euria: 25%	euria: 10%	euria: 50%	euria: 10%	euria: 15%
Min: 19 Max: 30	Min: 15 Max: 28	Min: 20 Max: 26	Min: 12 Max: 24	Min: 14 Max: 18	Min: 12 Max: 21	Min: 12 Max: 21

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	31	5	18.1
Etxarri A.	30.5	2.7	9.5
Altsasu	29	4	12.7
Aralar	21.9	0.8	10.7
Urbasa	26.5	-0.5	19.4

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
1	9	17	24

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Etxe pasiboetarako egokia  
\$ 9000

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti
ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Bazkide sarituak

LANDER URRIZA LAZKOZ (BAKAIKU)

ROSA MENDOZA ARREGI (ALTSASU)

ASUN RAZKIN RAZKIN (URDIAIN)

JAVIER ZIORDIA FERNANDEZ DE GARAIALDE (ALTSASU)

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2., 3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

# >> 11 galdera

Carmen Mendoza Mugika

Moja Peru

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



Carmen Mendoza, Errukiaren Andre Mariaren Ahizpen kongregazioko moja.

# Egin zure bidea gurekin

# gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

**1. Zer moduz Ziordira bueltan?**  
Oso gustura. Familiatz, lagunez, paisaiatz disfrutatzen. Kasik 3 hilabete emanen ditut hemen.

**2. Nolaz erabaki zenuen Ziordiko nobizio-etxera joatea?**  
12 bat urte nituela Jesusen bizitza irakurtzen, batez ere nekaldiak asko hunkitu ninduen. Orduan pentsatzen nuen: berak nigatik hainbeste egin bazuen, nolaz ez dut baina nik bere eta besteen alde ezer eginen? Berez sortu zen. Hori landu nuen. Mojak etorri zirenean igande arratsaldeak nobizio-etxean pasatzen genituen lagunek. Maisu-ama, hezitzailea zenak, deitu zidan eta esan zidan: zuk ez zenuke jostun edo halako zerbait izan nahi? Ez, ez. Nik moja izan nahi duterantz nion. 14-15 urte nituen orduan. Irakasle-ikasketak bukatu eta orduan behar gintuzten tokira, Perura, joan nintzen, 1960an. AEBn lizentziatura egin nuen.

**3. Irakasleen irakasle, beraz?**  
Taratotoko pedagogia institutuaz, oso ongi. 1985ean Limara bidali ninduten, kongregazioan hainbat lan egitera. Bigarren hezkuntzako ikastetxe batean 7 urte eman nituen. Aurten 9 urte egingen du Limako periferian dagoen kokalekuan, herrixkan, Manchayn.

**4. Nolako da?**  
Duela 33 urte hutsetik sortu zen eta 100.000 bat biztanle ditu. Denak mendietatik etorriak, orduan Sendero Luminosoren terrorismoak erasotzen zituenak. Bere ondasunak, maite dituzten pertsonak galdu dituzten pertsonak dira. Lima ondoan lurra opatu zituzten eta han kokatu ziren. Oraindik iris-

ten ari dira. Orain pobrezia desplazatu. Etorri eta etorri ari dira, pobrezia handia dute. Barga moduko maldetan etxebizitza prekariora goraino iristen dira. Premia askorekin bizi dira.

**5. Bakarrik zaudete?**  
Beste kongregazio batzuk ere badaude. Jose Chuquillanqui apaiza, 20 urte daramatza parrokiari, dinamikoa da eta prestakuntza asko interesatzen zaio. Oso fededunak direnez, erlijiosotasun hori landu behar da, sakramentuak eskatzen dituztelako. Apaizak haien garapenean ere interesa badu. Aurrera egin dezatela, pobrezia egoeratik ateratu dezatela. Askorendako argindarra, ura, errepideak, hezkuntza... lortu ditu. Baina falta da oraindik.

**6. Zein da zuen egitekoa?**  
Parrokia bat da eta zortzi bederatzikapera daude. Gu San Jose de la Uniongoa dugu. Gure ardura dira: haurren erlijio ikasketak; bataio, lehen jaunartze eta sendotza prestakuntza; katekisten prestakuntza; familia buruekin bilerak; bataioa hartuko dutenen gurasoendako prestakuntza.

**7. Behartsuekin, zer?**  
Etortzen diren batzuk ez dute zer jan. Gure ahalbideen esku, partekatzen saiatzen da. Jasotzen ditugun ekarpen batzuk ere horretara bideratzen ditugu, jakiak erosi eta ez dutenei emateko. Hori horrela ikusita, badirudi existentzialismo moduko bat mantentzea dela. Ez da onena.

**8. Uholdeak ere izan dira...**  
Eurria, egun bat eta bestea. Baina

noiz bukatu behar da hau! Etxeak eta aurretik opatu duen guztia eraman dute uholdeek. Gugandik gertu izan da. Ahizpetako batzuk laguntza ematera joan ziren. Jendea ezer gabe gelditu da, uholdea iritsi zenean atera zena dute soilik. Orain berreraikuntza heldu da. Oso garestia izanen da. Milioi bat pertsona dira kaltetuak.

**9. Zenbait ahizpa zaudete etxean?**  
Bost gara. Maria Jesus Iriarte olaztiarra da etani, 83 urtekoak. 60 urteko peruarra dago. 50 urteko txinatar bat da beste ahizpa. Azkenik, trebatzen ari den venezuelar bat dago. Botoak egin berriak ditu. 30en bat urte ditu. Ikasten ari da. Ahal duguna egiten dugu. Gehiago bageunde, gehiago.

**10. Lan hori egiteko laguntza behar duzue?**  
Batere arroparik gabe gelditu dira eta orain negua iritsiko da. Hori jaso nahi dugu Altsasan, Frontoiko zeharbidearen 14an, udalaren bajaran, asteazkenetan, 11:00etatik 13:00etara. Diru ekarpenak Caixa banken zabaldu ditako kontu korrontean egin daitezke. Hori-kin materialez betetako edukiontzien bidalketa ordainduko da. Eta soberan dagoen dirua Perura bidaliko dute, guk han elikagaiak eta botikak erosi ahal izateko. Gu apaizarekin koordinatuko gara.

**11. Errukia.**  
Batuetan gaizki ulertzen da errukia. Hau pena... eta beste. Ez da horrela. Pena da, bai. Baina pena aktibo bat. Besteendako ona egiten duen guztia... hori da errukia. Osorik: [www.guaxe.eus](http://www.guaxe.eus)